



EUSKALDUNDU DIRA

EUSKAL HIZTUN BILAKATU DIREN SEI GAZTE ETORKINEN TESTIGANTZA

GIZARTE ▶ Azpeitian ere tratatu txarrak

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik



EUSKAL OKELA



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"**

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi
Especializataua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREB.
TFNOA.: 943 81167



Bakea

Bake Forora deitu ninduten. Denon bultzatzaileak beharrezkoa izango da aurrera egiteko. Ezin, bada, uko egin.

Martxoaren zazpian izan zen. Bakoitzak bost proposamen aurkeztu behar zituen, gero proposamen guztietatik hiru aukeratzeko. ETA borroka armatua amaitzea, Estatuaren bortizkeriarik eza, alde bateko eta besteko biktimak, kale borroka, alderdien legea... Esparru handiko hitzak.

Herri mailarako proposamenak ere izan

ziren, partaidetza foro txikiak antolatzea, elkar entzuten ikastea, heziketa programak, bake eguna antolatzea...

Herritarren eragina ezinbestekoa zela ondorioztatu nuen. Gogoz zegoen jendea bere aletxo emateko. Jende ezberdina, emateko asko daukana, eta elkarrekin asko egin dezakeena. Kezka ere gelditu zitzaidan. Ez al da egun bateko bileran geratuko ahalegina!

Geureak esan eta besteenak entzun, bata besteen lekuan jarri eta ulertzen saiatu. Ba-

daukagu lana. Bestea nire lekuan jartzen ahalginduko balitz, nik ederki azalduko nioke zein den nire perspektiba, nire bizipenak, zer maite dudan, nolako ametsak dauzkadan, zergatik nahi dudan nahi dudana. Nire jarrera politikoa nondik nora sortu den argi erakutsiko nioke, non ikusten ditudan bizikidetzarako mugak eta ahalmenak, nola bideratu daitekeen elkarrekiko harremana...

Ni besteen lekuan jartzea... hori zailagoa da!

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 83.a (2007ko apirila)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Maider Zendoia

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[u-irritzia]

08 Inkesta. Aste Santuak gainean dira eta herritar askok kanpora bidaiatuko du. Baina nora joaten dira, batik bat?

09 Zer dio? Bilgune Feministak eta Emakume Taldeak martxoaren 8ko ekitaldien inguruko kritikei erantzun nahi izan diete.

[u-mamia]

12 Tratu txarrak. Edurne Zubia Udaleko Gizarte Ekintzako arduraduna, herrian dauden tratu txarrez.

15 Klik. Agustin Arenas argazkilariren udaberriko irudiak ikusgai.

20 Baserria. Kalean jaio arren, baserri aldera joandako herritarrak.



[u-jakiteko]

24 Batzokia. Azpeitiko Batzokiak 100 urte beteko ditu aurten. Apirillean erakusketa egingo dute hori ospatzeko.

[u-euskara]

34 Etorkinak. Beste herrialde batetik Azpeitira bizitzera etorri eta epe motzean euskal hiztun bilakatu diren sei gazterekin izan da Uztarria.

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Bilera irekia

Xoxotetik behera natorrela, Nahargun parean, geldialditxo egin eta Azpeitiari begira jarri naiz. Martxialeneko lurrunean ezkatututako kea eta koliseoa –zezen-plaza, barkatu– nabari dira.

Nekeak eraginda-edo, pentsamendu goxoan barneratu naiz eta Plaza Nagusiko kioskoa azaldu zait. Herritar ugari da bertan, gehientsuenak. Kartel handi batek bildu ditu, itxuraz: “Gaurko gaia: etxebizitza; erabakiak hartzeko bilera irekia”. Kiosko gainean emakume bat dago bildutakoei herriak duen etxebizitzaren arazoari buruzko azalpenak ematen. Talde baten izenean hitz egiten omen die. Lehendabizi datuak eman ditu; besteak beste, zenbat etxe dauden hutsik herrian, gazteak eta emakumeak direla arazo gehien dutenak, laguntza kontuak, portzentaiak... Gero, irtenbidea topatzeko ustez zer egin beharko litzatekeen azaldu du eta beste herritar bati eman dio txanda.

Bigarren horrek ere antzeko bidea burutu du: aurkezpena, analisisa eta irtenbideak. Oraingoa Atano III.a praka zuriekin ikusitakoa da. Etxean igo-gailurik ez dutela-eta, bere ustez babes ofizialeko zozketan sartzeko eskubidea dutela dio. Hurrenak dio istripu madarikatu hark mugitzeko ahalmena mugatu ziolabaina ez bizitzeko gogoia eta, lehenaz gain, laster egingo diren etxebizitzek euren egoerara moldatuak beharko luketela...

▶ **GIZARTE EREDUA.** Gorbatadunak eraikin zaharren egoerari buruz hitz egin du, berritzearen kostuaz eta finantzabideaz. Gazte itxurako nerabeak ere iritzia eman du: agian, lokalak moldatu beharko direla, aberaskumeguneak sortzen ari gara; agian, ez dela etxebizitza kontu soila, gizarte eredu kontua baizik... Azken-hurrenak alokairu sozialari buruzko txosten bat irakurri du, zeinean sistema horren abantailak eta hutsuneak agerian gelditu diren. Azkena, egin berri denaz eta egin

nahi denaz mintzatu da. Entzun beharreko guztiak entzun eta gero, galderen txanda iristean, itaun zuzenak talde bakoitzari eta erantzun zehatzak. Eztabaida aberasgarria eta, ostean, bozketa. Pertsona bat boto bat eta bertaratu direnek erabakitakoa... aurrera. Gaia jarraitzeko batzordekideak aukeratzeari, epeak zehaztea, aurrekontuak era errazean azaltzea eta kutzako diruarekin hori dena martxan jartzea erabaki dutela iruditu zait. Mikel Laboaren musika bakarrik falta da pentsatu dut harribidean behera abiatu naizenean –*inor ez inoren menpekorian, norbere buruan gabe*–.

▶ **AUZOKO BILERA.** Presaka jaitsi naiz, neure auzoko bilerara iritsi nahi dudalako Enparan dorretxera. 150 lagun daude deituta bilerara eta bertaratuak bi dozenara ez gara iristen ordua jota duenean. Ez da Naharguneko ametsa. Gai errealak dira: estolderiaren egoera negargarria, garbiketa nola eraman, festak, diru kontuak eta abar. Tranpaldoaren gainean daudenek esandako guztia onartu da presaka-presaka. Galderarik ez. Etxera bizkor itzultzeko gogo galanta. *Goenkale* kate batean eta futbola bestean. Errrealitatea.

Hurrengo hilean hauteskundeak izango ditugu herrian eta zure botoa eragingarria izango da erabakitzeko hurrengo lau urteetan nolako Azpeitia izango dugun.

Zure baimenaz, hainbat galderatxo:

1. Gustura al zaude zure ordezkariak aukeratu-rik, erabakitzeko ahalmen guztia haien esku utzita?
2. Zuzenean dagokizun erabakietan iritzirik eskatzen al dizute? Emango al zenuke?
3. Zuren iritzian, agintean daudenek gustura hartuko al litzukete herritarren parte-hartzea eta ekarpenak udaletxeko bileretan?
4. Oraingo hau al da herri bat kudeatzeko modu bakarra?

Lasai eta gustura bizi bazara horrela, eman botoa gogoko duzun horri eta segitu patxada ederrean. Beste zerbait gogokoago bazenu, hasi mugitzen edo, bestela, Xoxotera igo ametsetan egitera; baina, mesedez, ez engainatu zeure burua. Ametsak errealtate non bihurtu badago.

HILEKO ESALDIA ▶

Lau urte, ez al da askotxo?

agirre oparidenda - Erdi kale 1 - Tel: 943 811325 -

ana mari egaña jantzi denda - Santiago kalea 16 - Tel: 943 813785 -

azkue jantzi denda - Erdi kale 7 - Tel: 943 811506 -

gemma kinkilidenda - Santiago kalea 10 - Tel: 943 151865 -

iturralde iturgintza - Eliz kale 12 - Tel: 943 811212 -

furundarena oinetakoak - Erdi kale 9 - Tel: 943 811143 -

gotain lurrindegia - Erdi kale 3 - Tel: 943 814358 -

jone eta maikar estetika zentrua - Julian Elorza 5 - Tel: 943 813898 -

jostaldi kirolak - Erdi kale 15 - Tel: 943 814623 -

lidia jantzi denda - Erdi kale 17 - Tel: 943 811264 -

martina isasti jantzi denda - Julian Elorza 5 - Tel: 943 812668 -

natura belardenda - Enparan kale 15 - Tel: 943 150931 -

torrealday aholkularitza - Iberotarren pl 7 - Tel: 943 150509 -

urrestilla jantziak - Erdi kale 6 - Tel: 943 811869 -

egin zaitez bazkide
943 810895

Alde Zaharreko Merkatariak
Urte Osoan Zurekin...





Olatz Pr at

Beste familia

Duela hilabete batzuetatik Arantzazura joaten naiz egunero lanera. Ez dakit beste lekuetan gertatzen den, hau baita nire lehen lana, baina hemen geure familatxoan eratzten goaz. Lan taldekoez gain, noski, badira Arantzazun nire beste familia eratzten duten pertsonak. Gauzak aldatu dira hara iritsi nintzenetik, batzuk etorri eta besteak joan, baina familia hori beti handitzen doa; Arantzazura joaten dena, nolabait, bertan gelditzen baita betiko.

Oñati bukaeran txokolate usaina egon ohi da, leihoa jaitsi eta arnasa hartzea gustatzen zait. Eskuinera jiratu orduko Juani eta Patrizia ikusi ditut. Sarritan egoten dira han. Goiko Gandiaga Topagunea eta Gogartetxea garbitu eta atontzen dituzte, beste lanen artean. Juani Puerto Ricokoa da. Duela pare bat urte etorri zen, bere bi haurrak amonarekin utzita. Malkoei eutsi ezinik kontatu zidan bere historia. Euskara ikasten dihardu, ez du meritu makala, sarritan pazientzia falta zaiola aitortzen badu ere, bertako jendeari zerbait ulertu ahal izateko bada ere ikasi nahi du. Dena den, ez daki ondo non aterrizatu duen, Oñatiko euskara baino zailagorik ez baita asko egongo. Gehien harritzen nauena, ordea, bere irribarre goxoa da. Beti umore onez, bere begietan nekea eta etsipena ikusten den arren. Patrizia brasildarra da. Beltzarana, ile luzea eta kiribildua. Hona ezkondata dago eta, nolabait, bizitza Juanik baino leunagoa dauka. Abes- tea izugarri gustatzen zaio. Autoan goazela irratiko doinuekin jolasean dabil. Honi ere gustatzen zaio flamenkoa. Nik berari aureskua erakutsi behar diot eta berak niri samba dantzatzen.

▶ **POSTARI LANETAN.** Bidean Angel Mari *Milikua* gurutzatu dugu. Milikua, Arantzazuko tabernetako bat da. Angel Marik auzoko postari lanak egiten ditu goizetan, arratsaldetan tabernaz arduratzen da, eta denbora librean bustinezko eskulturak egitea gustatzen zaio. Eguraldi ona egiten duen eguerdian mahaia eta aulkiak ateratzen dizkigu atarira, kafea eguzkipean har dezagun.

Sindikakoak ere bisitatzen ditugu. Lanez gainezka dabilta orain, ostatua itxi zutenetik jende guztia hara joaten baita bazkaltzera. Ostatuan Margarita eta Nacha egon ziren lanean, baina itxitakoan lanik gabe gelditu ziren. Margarita ere Puerto Ricokoa da eta Nacha txiletarra. Margaritak inguruetan jarraitzen du lanean, taberna ezberdinetan. Nacha, ordea, Bartzelonara joan zen "*a buscarse la vida*", berak esaten zuen moduan. Triste joan zen, baina orain egun batzuk mezu bat idatzi zigun, oso ondo zegoela esanez; pisu txiki bat omen dute, gizona lanean omen dago eta bera, oraindik lan bila badabil ere, gustura omen dago.

▶ **ARANTZAZUKO FRAILEAK.** Fraileekin sarri egoten gara. Bisitan etortzen dira, noiz edo noiz gonbidatu ere egin gaituzte eurekin bazkaltzera. Dezente daude. Ofertoriora sartu eta harritu ninduen 30-35 bat fraile ikusteak. Guk betiko zortzirekin dugu harremana eta hango asko ezagutu ere ez nituen egiten.

Adina ez da haietako askorentzat gora eta behe- ra eta hemendik hara ibiltzeko aitzakia. Beti laguntzeko prest daude. Zerbait muntatu behar bada, tarima bat egin behar bada, kortinak kolokatu, estufa bat ingurat... Beti dute irribarrea aurpegian. Bulegoan sartu eta "zer moduz *Azpeiti*?"

Mojak ere baziren. 'Baziren' diot, martxoaren hasieran joan egin zirelako Arantzazutik. 60 urte inguruan egon ondoren, beste lurralde batzuetatik erreklamatu dituzte, leku horietan behar handi- goa dago-eta. Rosario eta Manoli Bartzelonara, Bernardita Kataluniako beste herri batera eta Teresa Marokora.

Gogartetxeaz arduratzen ziren orain arte. Noiz- bait han gelditu naiz lotan, hotel bat bezalakoa da, baina bost izarreko edozein hotel baino goxoagoa. Zer janari goxoa, ze epeltasun, ze txukuntasun... Faltan botako ditugu dudarik gabe gure emaku- metxoak.

▶ **SINESMENA.** Ez naiz kristaua, ez sinesduna. Baina leku honek jartzen nau batzuetan dilema horretan. Ez dakit, sentimendu onak kanpora ater- tzerara behartzen zaituen leku bat da hau eta baita bertako jendea ere. Egunero etorri eta bertan aur- kitzen dudanak, konpentsatu ez ezik, gaintu egi- ten du ordubeteko bidaia.

berria

BALEAREN ARRANTZA, ONESTEKOTAN
Igoria aldiroa eta diru laguntza hartzen berriro MC Coghingoa durratzen

Iruña-Veleian aurkitutako euskarazko hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira

■ Etxe baten zremduetan topatu dituzten idazkietan eguneroko bizitzan erabiltzen ziren berrik eta kutsu eibonazkoak ageri dira ■ Hitzekin data zehatzak ez dira, baina gramatikako zehazkerak bano gero 600 urte lehenagokoak izan daitezke jakinarazteko



Felip Puig

«Esquerra okertu egin da eta ez du jakin errealtatea ulertzen»

11/11/2010 12

Eduardo Zubizarre izendatu dute Adogli Gopuzkaako patronaleko presidente

«Ez du errotu, baina buruz buruzkoak dira, baina ez dira berrik»

■ Hitzekin aldatzeko proposamena ez da erabaki prestatuta du Juaritzak

11/11/2010 12:00

Asesinada la periodista que denunciaba los abusos de Putin

■ Un periodista rusu a Anna Politkovskaya en el asesinato de las Casas rojas en el estado de Mordovia. Mantenia una posición muy crítica con la política del Kremlin en el momento de la crisis de la escuela de Beslan

Los jueces sustitutos de Gopuzkoa estudian demandar al Ministerio

■ Los jueces sustitutos de Gopuzkoa estudian demandar al Ministerio de Justicia por la falta de recursos humanos y materiales en el juzgado de Gopuzkoa




18 500 personnes avec Batera pour un référendum sur le département

■ Les élus du Batera ont demandé à leur campagne à l'initiative d'un référendum sur le département de Batera



Fernando Alonso, a un salto del título de campeón del mundo

■ El piloto de Ferrari Fernando Alonso se acerca a un salto del título de campeón del mundo de Fórmula 1



El Gobierno se planteó en Armada para parar los

■ El Gobierno se planteó en Armada para parar los buques de guerra de los Estados Unidos



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Hau ▶



Aitor Zinkunegi

Gure izarra...

Aurten ere, milaka izango gara independentzia eta sozialismoaren proiektu politikoa babestuz, kalera irtengo garen gazteak. Milaka gazte askatasun egarriz eta asetzeko inoren zain egoteko prest ez gaudenak. Gaurtik eta gauden lekutik, aske izaten saiatuko garenak. Arabako lurretan geure izarrenen distirak gidatuta, independentziaren bidean.

Independentziaren bidean goaz, kontzeptua zabaltasun osoarekin ulertuz, borrokatuz. Independentzia nazionaletik haratago, aske izan nahi dugun milaka gazte. Kate guztiak apurtuz, sasi guztien gainetik. Hizkuntz eskubideak, etxebizitza eskuragarritasuna, aisialdilibrea, izaera feminista, demokrazia parte-hartzailea, lurraren defentsa... guztiak dira beharrezko independentzian.

Apirilaren 6an, Untzagatik abiatu eta Aberri Egunean iritsiko gara Laudiora gure aldarrikapenarekin, gure izarrekin. Milaka gazte, Euskal Herri aske eta burujabe baten alde, geure arazoei irtenbideak aurkitu nahian, jo ta ke! Sinboloez gaindikoa izango den Aberri Egunean, eskubideen aldeko borrokarako mezua zabalduz. Badugulako zer eginik, zapalkuntza nazionala bezala, klase zapalkuntza egunero pairatzen dugulako. Azpeitian bertan bizi dugu errealitate hori, agintari 'nazionalistak' izan arren, eskuindarrak ditugulako. AHT, saihezbideak, hipotekak, prekaritatea... inposatzen dizkiguten eskuindarrak. Helduoi gaizkile edo 'terrorista' garena sinestarazi nahi dizuetenak. Itzali telebista, bota *El Diario Vasco* zakarretara eta ezagutu gaitzazue kalean, ez gara horren 'txarrak'. Aske izan nahi dugu, independentzia osotasunean ulertuz. Iparra galdu gabe, iluntasunean distira gehien duen izarri jarraituz; gure izarra... independentzia!

Galdetuz ▶

Aste Santuetan herritar askok bidaiatzen al du kanpora?

MAITE LAZKANO ▶

Halcon Bidaiak



"Jendea aspaldi hasi zen mugitzen Aste Santuetarako. Gauza gutxi geratzen da

dagoeneko. Jendeak, batik bat, irtetara joan nahi du, baina azken egunetan kosta aldeko eskaerak ere asko izaten dira. Familiak eta bikoteak dira gehien etortzen direnak".

MIREN ARRIZABALAGA ▶

Eroski Bidaiak



"Errege ondoren hasten da jendea Aste Santuetako oporrak prestatzen. Kanariar

uharteetako bidaiak eskatzen digute askok. Hala ere, eskaera ez dago penintsulan kontzentratuta lehen bezala. Orain banatuago dago; bidaiatzea asko sozializatu da".

ROSA AIZPURUA ▶

Urola Bidaiak



"Gabon ondoren hasten da jendea Aste Santuetako bidaiarekin pentsatzen. Bost

eguneko oporrak izanda, gehienek gertuko lekuak aukeratzen dituzte: Pirinioak, Mediterraneo, Asturias, Kantabria edo Landak, esaterako. Benidormerako eta Salourako eskaera gutxitu egin da azkeneko urteotan".

Apunteak ▶

GORA.

Azpeitiko emakumeen parte-hartzea nabarmendu zuten martxoaren 4an Donostian izandako XVIII. lilatoi lasterketan. Udalari sari berezia eman zioten korrikalari gehien aurkeztu zituen herria izateagatik.

BEHERA.

EAEko Auzitegi Nagusiak balio gabetu egin du Azpeitiko Udalaren euskara normalizatzeko ordenantza, "euskara inposatu eta gaztelera baztertzeko duela uste duelako. 2005eko abenduaren 1ean onartu zuten ordenantza, EAJ, EA, PP eta PSE-EEko aldeko botoekin.



Basazabal. UZTARRIA

GALDERA.

Basazabal etxea Udalak erosi du eta hotela zabalduko du bertan. Hirigune historikoa biziberritzeko helburua dauka Udalaren egitasmoak. Hotela zabaltzeak lortuko al du helburu hori?

Ba al dakizu... ▶

...eskualdeko Lurreko Telebista Digitala sortzeko eskaera egin duela Urola Kostako Komunikabideak-ek (Zarautz Telebistak) eta Kaito Telebistak harekin hitzartu duela Azkoitia eta Azpeitia berak lantzea?

Zer dio? ▶ Leire Ibaguren (Bilgune Feministako kidea)

Emakumeentzat bakarrik... noski!

▶ **Azpeitiko Emakume Taldeak eta Bilgune Feministak martxoaren 8an antolatutako ekintza batzuei buruz jasotako kritikei erantzun diete.**

Emakumeentzat autodefentsa ikastaroa ez da indarkeri polizialaren aurrean edo beste mota bateko erasoen aurrean gure burua defenditzeko ikastaro bat, espezifikoki gizonen eskutik jasaten dugun indarkeriaren aurrean defenditzeko baizik. Bortxaketa batean, autobusean albokoak ipurdia ukitzea, auto-stop egitean, jaietan gertatzen diren egoeren aurrean, gure ondoan dagoen emakumea erasotua dela ohartzen garenean, gaueko hiruretan leku ilun batetik pasatu eta beldurra sentitzean, norbaitek jarraitzen gaituenean, eta horrelako kasuetan gure buruarekin seguruago sentitzeko eta defenditzeko bitartekoak emateko ikastaro bat izan da.

Emakumeok kolektibo bezala jasaten dugun indarkeria da, eta aurre egiteko gure arteko elkartasuna indartzea ezinbestekoa da. Gaur egun emakume ugari dago beraien zapalkuntza ikusi ere egiten ez dutenak; horregatik, emakumeok geure arteko elkartasuna indartzeko, emakume izateagatik jasaten ditugun eraso eta diskriminazioen aurrean bakarrik ez gaudela sentitu eta gizarte justuago batengatik borrokatzeko espazio propioak izatea ezinbestekoa dugu. Espazio hori sortzea zen tailerraren helburua.

Tailer hori emakume eta gizonentzat antolatzea berdintasun itxura bat betetzea litzateke, eta itxura betetzea ez da gure helburua. Indarkeria matxistaren aurkako autodefentsa ikastaro bat emakume eta gizonentzat batera antola dezakegunean, benetan indarkeria hori existitzen ez delako izango da, eta orduan jadanik ez da beharrezkoa izango.

Pentsioak

Azken egun hauetan jakin dugu Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabaki baten berri: pentsioak, oso eskasak diren pentsioak, alarguenak edo zenbait elbarriturenak, soldata minimoarekin parekatuko dituztela. Ondo, oso ondo egina!

Demagun, gure gizartea familia batekin konparatzen dugula. Hau da, batek asko duela eta beste batek gutxi. Imajinatu diru nahikoa daukanak bere tartekoari laguntzeko diru kopuru bat uzten duela nonbaiten eta denbora pasatu ahala tarteko horrek diru hori jasotzeko arazoak dituela. Azkenean, familiartekoaren egoera penagarria ikusita, beste diru kopuru bat ipintzea erabakitzen du, zuzenean berari emanez dirua. Ez al du bi aldiz ipintzen? Nire iritziz, horrelako zerbait gertatzen zaigu orain. Lanean gauden gutako bakoitzak, soldataren araberako portzentaia ematen diogu gizarte segurantzari, gero honek bana dezan, baina banaketarako ezarritako sistemaren ondorioz, batzuek oso gutxi jasotzen dute eta, ondorioz, larrialdi egoera nabarmenean bizi dira.

Gure Autonomia Estatutuak dituen ahalbideak asko dira, baina Madrillgo Gobernuak –berdin da PP edo PSOE izan– ez digu legez dago-kiguna ematen; zergatik ote? Hemen PSOEek aldarrikatzen duena zergatik ez du onartzen Madrilan eta aurreratutako dirua hemen banatu nahi duen moduan banatzen? Egin behar denean, egin, egin behar da, baina ez dezagun ahaztu eskumena duenak egingo balu, diru hori beste behar batzuetarako erabiliko litzatekeela: zaharrentzako egoitza gehiago egiteko, hezkuntza hobetzeko, garraio publikoa gehitzeko, osasun zerbitzuak azkartzeko...; guk ditugun egin beharrekoak egiteko!

Ez da asko, baina onura hori jaso behar duenari ondo etorriko zaio; gure dirua ondo banatuta eta beharra duenaren esku geratzen da.

◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Positibismoaren kalkuluak



Igor Aranbarri

Aupa, gizon! Zer berri? Au-
Arreko eskutitzean helduak
ginela genioan, baina ohartu
berri nauk ume moko inuzente
bat baino ez naizela. Hire mo-
duan gurasoen hotelean bizi
nauk, bost izarretik gorako pen-
tsio konpletoan. Gustura
nagok nire erreinu partikularre-
an, baina gertaera berri batek
kontzientziaren leiho bat ireki
zidak bat-batean. Ustezko hel-
dutasun hau lortu nuenetik
lehen aldiz babes ofizialeko
etxeak jarri ditiztek Azpeitian
zozketagai, 21 'kiloren' bueltan
Loiolako zelai berdeei agur
esan eta etxeak eraikiko ditiz-
tek azpeitiarron mesedetan.
Baina nork nahi dik belar ber-
derik bizitzako gastu garrantzi-

tsuena erdi prezioan usten ba-
dute? Ongi, bada yogako nire
irakasleak esaten duen bezala,
baikor pentsatzen baduk gau-
zek nahi bezala irteten omen
ditek. Beraz, nik, positibo asko,
izena eman eta ari nauk nire
indar guztiekin tokatuko zaidan
etxea gogotsu proiektatzen.

Horretan nabilela, programa
informatiko bat etorri zaidak
esku artera. Oso sistema erra-
za dik: zenbat diru behar duan
jarri, interesa zehaztu eta zorra-
ren urte kopurua erabakita hile-
ko kuota ateratzen dik, di-da
batean!

Eta horrela, positibismoari
helduz, tokatuko zaidan etxea
nola ordainduko dudak kalku-
latu diat: 150.000 euro (25

'kilo', muebleak barne), batez
besteko interesa sartu eta 25
urtetan ordainduko diat, txolo
bat duk-eta... Kuota=833,75
euro! Beno... eta... 40 urte-
ra=674,34 euro! Eta... 50 urte-
ra=629,08 euro!!!

Agian, heldua den orok ba-
zekik hau horrela dela, baina ni
orain enteratu nauk. Irudika-
tzen diat, kiroldegian, tokatzen
zaidanean emango dudak pozez
betetako saltoa, baina baita ondoren nire sabelak sa-
kelera begira jasango duen ko-
rapilo beldurtia ere. Kaixo nire
etxe babestua! Agur nire bizi
soziala! Eta tokatzen ez bada?
Etxe bat okupatzeko zer paper
bete beharko genituzke? Kon-
tua beltza, Kepa...

Itotzeko moduko sistema



Kepa Urbieta

Igor, maitea! Behin baten gal-
detu zidatean ea etxeko hor-
man zer graffiti egingo nukeen.
Nire borondate onenarekin
"eskerrik asko" erantzun nieran,
baina uste diat gurasoei etxean
graffiti bat egiteak ez ziela gra-
ziarik egingo. Ezta eskerrak
emateko bada ere. Arrazoi guz-
tia daukak. Gurasoenean bizi
garen bitartean hotel batean
bizi gaituk. Eskerrak ipurdia
garbitzen umetan erakutsi
ziguten, bestela hori ere...

Heldu izatea arazo handi bat
duk, hain zuzen ere arazo 'txiki'
guztiak konpontzeko ardura
dakarrelako. Erabakiak hartu
behar etengabe, alde on eta
txar guztiekin. Horregatik, Igor,
ez haiz ume moko bat. Geure

burua itotzeko balio duen siste-
ma batean bizi gaituk. Eta oke-
rrena duk sistema hori gu geuk
sortu dugula. Gu baino izaki
inutilagorik!

Ez diat nahi hartu duan era-
bakiaz damutzerik, baina kalku-
lu horietan gauzatxo bat ahaztu
zaik. Hileroko 629,08 euroei
etxeko beste gastu batzuk gai-
neratu behar dizkiok: adibidez,
hilabeteko janaria, argindarra...
Jo dezagun hori 250 euro bes-
terik ez direla. Guztira, 879.08
euro. Eta hik bezala lanera joa-
teko kotxea behar duen bati
gehitu beste plus bat. Eta aipa-
tu gabe utzi ditugun gastuak...
Mileuristak jai diagu. Abentura
horretan sartu nahi baduk,
irtenbide bakarra daukak: bi

aldiz ezkondu; lehendabizi gas-
tuak erdibana egiteko prest da-
goen norbaitekin eta gero ban-
kuarekin. Hobeto pentsatu eta
atzera egiten baduk, berriz, au-
kera gehiago dituk: etxea duen
norbaitekin ezkondu, gurasoe-
kin bizitzen jarraitu, edota, bes-
tela, gurasoekin serio-serio hitz
egin: "Eskerrik asko urte haue-
tako pazientziarengatik eta
egin duzuen guztiarengatik,
baina nire bizitza egiten haste-
ko garaia heldu zait. Agur, eta
ondo bizi Mixikordiyen!", eta
heu geratu etxearekin. Zenbat
gazteri pasatu ote zaiok hori
burutik, dagoeneko norbaitek
ez baldin badu egin. Zorte on
zozketan, baina 'ona' zer izan-
go den hik erabaki.



EDURNE ZUBIA ▶ Azpeitiko Udaleko Gizarte Ekintzako arduradun teknikoa

“Hemen ere biktimek normaltzat daukate tratu txarrak izatea”

▶ Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkiak: Maider Zendoia

Azpeitiko udaletxean gizarte lanean dabiltzanek asko bizi dute tratu txarren drama, gertutik. Langileotako bat da Edurne Zubia, Gizarte Ekintzako arduradun teknikoa. 23 urte daramatza udaletxean. Udala duela 15 bat urte hasi zen arlo hau bereziki lantzen. Gizarte langileak lau dira. Haiez gain, bi administrari daude, bi hezitzaile eta hiru psikologo kontratupean.



laz tratu txarren 23 kasu berri jaso zenituzten herrian. Tratu txarren zenbatekoa da?

Ezta ideiarik ere, baina badakigu askoz gehiago daudela. Aurreko urteetakoak ere hor daude, eta jarraipena egiten diegu. Berrien bila ere bagoaz, erraza ez den arren. Adibide bat: 2005ean seguru nekien beste bi kasu bazeudela, neuk deitu nien biktimei, baina ukatu egiten zidaten, esaten zuten ez zutela tratu txarrik jaso. Horrelako kasuak gero ez ditugu zenbatzen, jakina.

23 kasu berri jasotzea asko al da?

Izan daiteke, bai. Beste herri batean gutxiago jasotzen badituzte, horrek derrigor ez du esan nahi

han tratu txar gutxiago daudenik eta hemen gehiago. Azpeitian programa asko ditugu arlo honi buruzkoak eta horregatik jasotzen ditugu kasuak.

Jendeari kostatu egiten al zaio zuengana joatea?

Bai. Igual udaletxean gaudelako eta hona etortzea ez zaielako eroso? Baliteke. Horregatik, Aitonena I gainean hirugarren solairuan beste zerbitzu bat jarri dugu, gazteekin-eta lan egiteko. Psikologoak ere hantxe daude, beste bulego batean. Bestela, biktimengana gu geu joaten gara.

Nola egoten dira haiek gauzak kontatzeko garaian?

Oso urduri eta beldurrez, euren familiakoa ez den bati kontatzen ari direlako kasua. Lehenengo elkarrizketan ez diezu dena ateratzen. Parte sartzera animatzen ditugu eta lagundu egiten diegu: epaitegira joateko, medikuarengana joateko, bereizten direnean bitartekari lanak egiten ditugu bikotekidearekin, psikologoengana ere bideratzen ditugu...

Azpeitian zer profilekoak dira erasotzaileak?

Batetik, ezagunak daude, betidanik herrian bizi izan direnak, hona bizitzera etorri izan direnak ere badauden arren. Bestetik, egoera ekonomikoa batzuetan faktore garrantzitsua izaten da tratu txarren kasuetan, baina Azpeitian biktimen artean ez daude maila baxuko pertsonak soilik, erdi mailakoak ere badaudelako; oraindik lortu ez duguna da maila altukoak etortzea, baina horiei ere aukera ematen diegu. Erasoa baldin badaude, denen berri izan behar dugu.

Azpeitiko iazko datuetan ikus daitekeenez, tratu txarren kasuetan bitan erasotzaileak semeak izan ziren.

Eta oso-oso erasokorrak, gainera, biak. Ama hiltzeko arriskua egon izan da. Ama batek ez zuen sartu parte, ez zuen ezer egin. Seme horietako batek beste herri batean ere sortu izan ditu liskarrak eta urruntze zigorra du han.

Iazko datuak

Azpeitiko Udaleko Gizarte Ekintzak 2006an jasotako kasu berriak dira hauek.

Tratu txarren kasu berriak Azpeitian. 23.

- ▶ Tratu psikologikoak: 7.
- ▶ Fisikoak eta psikologikoak: 16.
- ▶ 11 biktimek parte sartu zuten. Beste 12k ez.
- ▶ 11 horiek banandu egin ziren bikotekidetik. Beste 12 kasuetatik bereizitakoak: 2.

Biktimak.

- ▶ Emakumezkoak: 20.
- ▶ Gizonezkoak: 3.

Erasotzaileak.

- ▶ Bikotekidea: 21.
- ▶ Semea: 2.

Biktimen adina.

- ▶ 40ko hamarkadakoak: 2.
- ▶ 50ko hamarkadakoak: 2.
- ▶ 60ko hamarkadakoak: 6.
- ▶ 70ko hamarkadakoak: 10.
- ▶ 80ko hamarkadakoak: 3 (bat 1987an jaiotakoa da, beste bat 1986koa).

Alaba bortxatu

Alaba bortxatzen duen aitarik egon, badago. Azpeitian bertan gertatu izan da. Hor dago joan den urtean Gipuzkoako Auzitegiak ateratako epaia: 51 urteko gizonezko bati hamar urteko kartzela zigorra jarri zion 2003an bere alaba "hainbat aldiz bortxatzeagatik".

Epaia arabera, gizonezkoak adindun alabarekin honek nahi gabeko sexu harremanak izan zituen Zarautzen eta Azpeitian zeuzkaten etxeetan. Horretara behartzeko, aitik alaba jo egiten zuen: besotik heltzen zion, muturrekoak ematen zizkion, ostikoak ere bai, eta ahoa estali, orrorik egin ez zezan. Heriotz mehatxuak ere egiten zizkion.

Alabak kalte fisikoak eta psikikoak izan zituen, eta haren aita 32.400 euro ordaintzera behartu zuen epaileak.

Adineko jendea ere badago.

Aurreko urte batean 80 eta 76 bat urteko azpeitiar senar-emazteak banandu egin ziren.

Gizonezkoak izan direnean biktima, zer tratu txar jaso izan dituzte?

Psikologikoak, ez fisikoak. Xantxia emozional handia egin izan diete. Gizonezko batzuk oso ahulak dira izaera aldetik eta emakumeek dominatu egiten dituzte.

Eta emakumeak direnean biktima?

Tratu txarra psikologikoa denean, gizonezkoak hari "ez duzu ezer balio!", "zure nire kontura bizi zara!", "ez zara ezer ni gabe!" eta halakoak esaten dizkio.

Tratu txar fisikoak nolakoak izan ohi dira?

Denak larriak, eraso denak direlako larriak. Baina hau esan beharra dago: guretzat eraso horiek larriagoak izaten dira, biktimarentzat baino. Hauek hainbeste urte daramatzate kolpeak-eta jasotzen, azkenean normaltzat hartzen dituztela bikotekideak lepoa estutzea, besoan ubelduak eragitea eta abar. Are gehiago: berriak sentitzen dira errudun, gauzak kontatu dituztelako.

Ez dirudi lan erraza zuenak.

Ez da. Baina, behintzat, jaso dezatela gure laguntza. Gero ikusiko dute salatu-ez salatu. Gainera, biktimek geure aldetik badute sekretu profesionalaren bermea: behin ere ez dugu haien daturik ematen (izena, helbidea...).

Eta zein da emaitza?

Zer gertatzen da sarri? Ikusten badute zuk lagundu nahi duzula, ihes egiten dute. Gainera, gauza asko isilpean gordetzen dituzte. Beraz, nola lagundu horiei? Azpeitian gertatu izan zaigu bikotea bereiztea baina gero geuk jakitea elkarrekin segitzen dutela. Oraingo kasu bat: zigortu batek urruntze agindua du, ezin du bikotekide ohiarengana hurbildu baina guk badakigu batera daudela...

Halakoetan, zein da arrazoiak?

Umeak daudela tartean. Beste arrazoi bat: emakumea beldur da ▶▶





► bakarrik bizitzeko, agian oraindik emakumea bakarrik bizitzen ikus-teak ez duelako irudi onik.

Beste tratu txar motarik?

Sexu abusuak Azpeitian zenbat dauden jakingo balu jendeak... Familiakoek beraiek eragindako sexu abusuez ari naiz, batik bat: anaiak, aitak... eragindakoez. Asko dago halakoa, asko, eta kasu berri-berriak.

Bizilagunek salatzen al dituzte gertaerak?

Bai, kolpeak eta orroak entzuten dituztelako, baina beldurra ematen die salatzea. "Ez esan nik salatu dudarik, eh", esaten digute.

Azpeitian heriotzarik gertatu izan denik ba al dakizu?

Nik 23 urte daramatzat hemen lanean eta ez. Aurretik ez dakit. Inor hil daitekeela? Bai. Neuk oso kasu larri bat ezagutu izan dut, iaz gertatutakoa.

Zuek kalean topatuko zarete erasotzaileekin...

Bai, baina kasu batek geuri per-

tsionalki eragiten badigu –erasotzailea ezaguna duzulako, edo auzokoa, edo kasuarekin berarekin ezin duzulako gehiago...–, beste langile bati pasatzen diogu. Oraitxe dela aste batzuk, berriz, gizonetako bat geure bulegora sartu nahian ibili zen, oso bortitz, geu erasotu nahian.

Zer moduzko jarrera dute Azpeitiko epaitegian?

Prozesua berez 48 ordukoa da: parte sartu epaitegian (edo Ertzaintzan; honek pasatzen du gero salaketa epaitegira) eta ustezko erasotzaileak jakinarazpena jasotzen du. Batzuetan prozesuak luze jotzen du, ordea.

Herriko adibide bat?

Gogoan dut bat. Batetik, emaku-

meari asko kostatu zitzaion pausoa ematea eta salaketa aurkeztea, urtebete egon zen parte sartu-ez sartu, azkenean sartu zuten, iazko uztailan, baina urrira arte zain izan zuten! Are gehiago: pixka bat lehenago, irail bukarran, epaitegitik deitu zioten, salaketa berriro jartzeko esanez...

Biktimak parte sartzen du eta zer gertatzen da?

Ustezko erasotzaileari salaketaz ezer jakinarazi aurretik, epaitegitik lehenago biktimari berari deitzen diote, jakinaren gainean egon dadin, eta orduan honek une horretan etxetik irteten du, bikotekidearen momentuko erreakzioa saihesteko, artean elkarrekin bizi direlako.

Programa berezia

Programa berri batekin hasi dira Azpeitian –Gipuzkoako beste hiru udal ere bai–, Gizargi Larrialdi Zerbitzuarekin elkarlanean, eta psikologo berezia dute, familietan ere lan egiteko. "Izan ere, gauza bat da biktima bikotekidearengandik bereiztea, baina hor gero etxeko giroa dago, umeak-eta daudelako tartean maiz", dio Zubiak.

Informatzeko

Helbidea. Udaletxea. Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Plaza 5; Azpeitia.

Telefono zenbakia. 943 157192 edo 943 157200 (+3 luzapena).

E-posta. gizartezertituak@azpeitia.net

“Biktimek jaso dezatela gure laguntza, behintzat; gero ikusiko dute salatu-ez salatu”

“Azpeitian familiakoek eragindako sexu abusu asko dago; kasu berri-berriak daude”

Bereizten direnean, zein gertatzen da etxearekin?

Normalean, emarekin gelditzen dena. Emakumea, gehienetan. Eta nik ulertzen dut orduan diru aldetik gizonetako arazoak pasatzen dituela, kasu hauetan gehienak ekonomikoki erdi eta behe mailakoak direlako: emakumeari diru bat pasatu behar dio, etxeko maileguak ere berak ordaindu behar ditu –mailegurik baldin badute–, berak nonbait bizi behar du, jan...

Biktimak medikuarengana doazenean, nora joaten dira?

Hona, Azpeitiko anbulatoriora.

Zeuk ere izango duzue harremanik medikuekin, ezta?

Oso estua. Biktima bat haiengan joan aurretik, geuk deitzen diogu medikuari. Abokatuekin ere harreman handia dugu. ◀



goiko kale 5, 3 A

943 08 06 88

REGI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

itzi penak - euskara planak - irudi korporatiboa - diseinu grafikoa



Agustin Arenas ▶

Datuak.

- ▶ 1958.
- ▶ Azpeitia.

Ibilbidea.

- ▶ 1975ean egin zen argazkilaria afizionatu.
- ▶ 1981ean pasatu zen profesional izatera.

udaberriari

BEGIRA

Agustin Arenas argazkilaria bere bi afizioak uztartu ditu udaberriari ateratako argazkiotan: argazkilaritza eta naturarekiko zaletasuna



ZAPELAITZA (2005eko ekaina)

Erlon kokatutako habiari argazkia ateratzeko, bridekin lotutako makila artean ezkutatuta orduak igaro zituen Agustin Arenasek. Zapelaitza habira itzuli eta klik, instant magikoa islatu zuen argazkian.



▶ **AROTZ HANDIA** (2006ko maiatza)

Sistiaga Errekan ateratako irudia txukun geratzeko, potentzia handiko bi flash behar izan zituen argazkilariak. Tripodearen gainetik botatako sarepean ezkutatu zen.

MARTIN ARRANTZALEA (1990eko ekaina)

Argazki hau ateratzeko Urola ibaian sartuta ibili zen, Salbe parean. Ibaiaren pendizean hegazti horrek egindako metro eta erdiko zuloa aurkitu eta bertan egon zen txoria itzuli zain.

KAKALARDOA (2003ko uztaila)

Arenasek berak disekatutako kakalardoaren argazkiari beste irudia muntatu zion azpian. Argien norabideak ondo koadratzea izan zen zailena.



BELATZA (2004ko apirila)

Arenas argazkilaritari ilusio berezia egiten dio behekoak.
Lau urtean ibili zen irudiaren atzetik: habia aurkitu,
argazkia ateratzeko leku aproposa bilatu eta topatu, atera...

**ZAPELAITZA.**

(2005eko ekaina)
Argazki honetako zailtasunik handiena zapelaitz talde osoa batera eta aurrera begira ateratzea izan zela dio Arenasek.

ERBIA

(1997ko uztaila)
Izarraitzen, kontrolpeko gun batean, erbien birpopulaketa egin zuten 1997an. Iluntzean, erbia jatera irtendakoan ateratakoa da irudia. ◀



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



Olamendi
Batxi Ondo

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



kutxa

Azkoitian hitzaldian

Josu Azpillaga uztarria.com-eko arduradun teknikoa Azkoitian izan zen martxoaren 26an *Informazio lokala eta Internet* hitzaldia ematen II. Informatika Astean, Urola Lanbide Heziketak antolatuta.



KULTUR AGENDA ▶ Hilabetea.

Apirila.
Banaketa.
Asteburu honetan.
Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.
Tirada. Mila ale.
Argitaratzailea.
Uztarria Kultur Koordinakundea.



IKASBERRI BISITAN.

Martxoan (15ean) Ikasberri Azpeitiko Ikastolako ikasleak izan ziren bisitan Uztarria Kultur Koordinadorearen egoitzan. Besteetan ere etorri izan dira hango beste ikasle batzuk, baita beste ikastetxe batzuetakoak ere. Herri aldizkaria nola egiten den, webaren kudeaketa eta abar azaldu zien Uztarriak. Argazkian, Xanet Esnaola irakaslea eta haren ikasleak, Uztarrian.



ORIOKOEI AZALPENAK WEBAZ.

Karkara Euskara Taldekoak ere bisitan izan ziren martxoan (16an); uztarria.com webaren funtzionamendua gertutik ezagutu nahian. Orio eta Aiako aldizkaria daukate, eta orain weba sortu nahi dute. Argazkian, Ane Aranburu uztarria.com-eko kazetaria, azalpenak ematen Karkarakoei.



1.053

bazkide gara dagoeneko Uztarrian; eskerririk asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro. Jasoko dituzu.
▶ Uztarria herri aldizkaria.
▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
▶ *Otsobeltz* liburua.
▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.
Jasoko duzu.
▶ Uztarria herri aldizkaria.

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/taldeak**Laster udaberria**

Laster udaberria, ze garai kuttuna! Martxoak 19, aitaren eguna. Guztiontzako hori denez ezaguna, bera baita bizitzan lagundu diguna, ez dezagun ahaztu bere maitasuna.

▶ **Erniarraitz Bertsozale**
Elkartearen leihoko bertsoa

Erantzunak

Udaberriak jaso neguko hesola, birigarro nahiz zozok kantuzko eskola, zuhaitz eta zelaiak lorez bete, nola! laster dator kukua ku-ku dariola, nork ez dauka borborka zainetan odola?

▶ **Motx**

Azken bertsoak sortu dit hamaika duda. Eguraldi ederrak zirudien uda, baina asteburuak nola digun muda. San Jose aurtengoan aste bihurtu da ez ote da beraren haserrezko guda.

▶ **Motx**

Hilaren hasieran guk zenbat irrifar giro ona nagusi egunetan zehar. Baina neguak bere ekarpena dakar Elurra dala eta ene! zenbat dar-dar lehen etzun egin ta orain egin behar.

▶ **Txirrita**

Badator, badihoa, ari du, badago garaian garaikoa urtaroz-urtaro.

Ni ere San Joseko loreen zai nago elurraren atzetik baitigu emango udaberriak are udaberriago.

▶ **Antton**

Zeinen giro 'bikaina' den Korrikarako. Erniarraitzek zati bat badu beretzako, igande goizaldeko laurak alderako lkasberri parean azaldu galako. Premian dagonari lagundu beher zako.

▶ **Laxaro**

Laxaro erantzunak dituzu baietzak

korrikak betetzeko dakarzkiz ametsak. Benga uxa ditzagun aitzaki ta kexak astindu hankak eta albora perezak ea zenbat indar dun gaueko zerbezak

▶ **Txirrita**

Gizendu behar denez euskeraren poltsa, Korrikan eragina ez degu hain motza. Ta horrek ematen dit benetako poza, nahiz gauak sarri duen eguneko lotsa, ahaztu zeresanak ta korrikan goza..

▶ **Laxaro**

**Argazkiak** ▶ uztarria.com/blogak/argazkiak**Poteo lagun xelebrea**

E-mail kate luze batekin argazki hau jaso dut. Saiatu naiz egilearen aztarna jarraitzen, baina ez da erraza izan. Azkenean, blogeko argazkia egilearen gertukoek ikusi eta jakin dut Esther Berasategi dela egilea. Astearte karnabalean ateratakoea da argazkia. Fideonean jendea zain zegoen, zezena xaxatu eta noiz sartuko zain. Esther barra atzean zegoen argazkia ateratzeko prest. Ttak, bai atera ere! ▶ **Leire Larrañaga**

Inkesta ▶

Parte hartzen al duzu Korrika Batordearen ekimenetan?

%43,3 Bai, ahal dudan guztietan

%6,5 Bai, baina lasterketan baino ez

%50,2 Behin ere ez

Orain dagoen galdera.

Utziko al diote ezker abertzaleari hauteskundeetan aurkezten Azpeitian ere?

Datua ▶

222

ERREGISTRO.

Uztarria.com-en iritzia emateko erregistratu beharra dago. 222 erregistro daude.

Di-da! ▶**'Azpeitia' izeneko errezeta**

Interneten aurkitu dugu *Azpeitia* izeneko errezeta. Pintxo bat da. Osagaiak: arrautza gogortua, antxoak oliotan eta mahonesa. Lehenengo eta behin, ogi zati batean mahonesa zabaldu eta bi arrautza zati jarri gainean. Arrautzaren gainean antxoa xerrak ipini eta erdialdea mahonesarekin apaindu. Azkenik, xehatutako arrautzaz dekoratuko dugu *Azpeitia* pintxoa. On egin!

Helbidea. www.cocina.org/16706/AZPEITI.html



kaletik

BASERRIRA

Kaletarrak izan arren, baserrian bizi
edo lan egitea aukeratu dute Iñaki
Alkortak eta Arantxa Larreak

► Testua eta argazkiak: Mainer Zendoia

Maiz esan izan da gero eta jende gutxiagok erabakitzen duela baserrian bizitzea. Baina azken urteotan bizimodu horren aldeko apustua egin duen jendea bada Azpeitian; hau da, nekazal eremu batean bizi edota lan egitea erabaki duten herritarrak badira.

Iñaki Alkorta da haietako bat. Ganadu kontrolatzailea da eta txikitatik izan du baserri munduarekiko zaletasuna. Urraki bidean, Garagartza Gain familiako baserrian makina bat ordu igarotakoa da, eta gaur egun ere egunean bi aldiz igotzen da baserrira. "Txikitatik gustatu izan zaizkit animalien eta baserriaren inguruko kontuak. Gainera, atsegin dut denbora libre bertan igarotzea", dio Alkortak. Horregatik, batxilergoa bukatu ondoren, Zizurkilen Fraisoro Nekazal Eskolan ikastea erabaki zuen. "Familiakoek esaten zidaten baserriko bizimodua gogorra dela eta ea argi nuen zer ikasi nahi nuen eskola hartan", esaten du. "Azkenean, asmatu egin nuela pentsatzen dut".

Arantxa Larrearena da beste kasu bat. Jaiotzez Paulo VI.a aukokoa bada ere, gauegun lbarbi-goena baserrian bizi da, Errezilen. Baserri mundua ez zitzaion arrotza Larreari, aita Barrenola baserrikoa baitu. "Txikitatik eza-

gutzen dut baserri mundua; umea nintzanean jolastera joaten nintzen, eta orain lanegin eta bizitzeko aukeratu dut baserrira". Dagoneko 11 urte daramatza Errezilen bizitzen eta gaur egun herrira itzultzea kostatu egingo litzaiokeela aitortzen du.

Iñaki Alkortak zaletasuna ogibide bilakatu du; ganadu kontrolatzaile gisa inguruetakoko baserrietako behieiesne kontrola egin eta txahalei belarritakoak jartzea da haren eguneroko eginkizuna. Gehien mugitzen den gunea Amezketan, Orendain, Tolosa, Albiztur, Bidania, Getaria, Zumaia

“Txikitatik gustatu izan zaizkit animalien eta baserriaren inguruko kontuak”

IÑAKI ALKORTA ► ganadu kontrolatzailea

“Erakundeek asko estutzen gaituzte; lagundu beharrean, baserritarrak itotzen ari direla pentsatzen dut”

ARANTXA LARREA ► baserritarra

eta Zestoa herriek osatutakoa da. Alkortaren iritziz, "gaur egun inguruko nekazal eremurik indartsuena Tolosaldekoa da. Getaria aldean eta txakolindegi ugari zabaldu dute eta, ondorioz, baserritarrek ganadua izateari utzi eta mahastiak jarri dituzte".

► **EGINKIZUN TXIKIAK.** Arantxa Larrearen sendiak esne behiak eta arkumeak saltzen ditu. Etxeko lanez gain, eginkizun txikiak ere izaten ditu baserrian: intxaurrak eta sagarrak bildu garaia denean, menditik sutarako egurra ekarri, animaliak inguruko belardietara eraman... "Ahal den neurrian laguntzen saiatzen naiz. Ukuiluan ez naiz asko ibiltzen, baina behien aska garbitu eta haiei lastoa ematen saiatzen naiz", dio. Etxeko kontsumorako oiloak eta baratza ere badituzte lbarbi-goena baserrian.


Alkortak baserrian behiak dauzka. Garai batean zituen gehienak suiza arrazakoak baziren ere, erosi dituen azkeneko behiak pirenaika arrazakoak dira. Azkena, martxoaren 10ean erosi zuen Tolosako ferian: *Luixa*. Kontu jakina da baserriko lana ez dela sekula bukatzen eta Garagartza Gain baserrian ere denetik egiten dute. "Etxerako baratza lantzen dugu, eta oilasko eta oilo-



ak ere izaten ditugu", dio Alkortak. "Lehen, oilasko asko izaten nituen, astean 60 bat saltzen nituen Donostiara, baina bukararako ez nintzen denera iristen, lan gehiegi zelako". Bestalde, urtean behin txerria hil eta txorizokoak egiten dituzte.

Alkortarentzat baserrira zaletasuna da eta, hala den neurrian, "poz eta pena txikiak" eman izan dizkiola onartzen du. Ildo horretan, erosi berri duen txahalak eragindako poza aipatzen du. Dena den, bestelakoak ere izaten direla esaten du; jaiotze eta segituan hildako txahalak, hanka igeltsatu beharrekoak eta abar.

Arantxa Larrea pozik bizi da Errezilen. Herri txikia bada ere, zerbitzu aldetik ez du kezarik. "Seme-alabek Errezilen bertan



ALKORTA ETA LARREA.

lñaki Alkortak (goian) ukuiluan lan asko egiten du, suiza eta pirenaika arrazako behiak ditu eta haiei jaten eman eta garbitzen orduak pasatzen ditu. Arantxa Larrea (behean) senarrari laguntzen saiatzen da. Ukuiluan lan gehiegi egiten ez badu ere, aska garbitzea bere kontua dela dio.



ikasiko dute hamabi urtera arte, eta auzokoak txandaka ibiltzen gara haiek eskolara eraman eta ekartzeko. Oso ondo moldatzen gara”.

Baserriko bizimoduari lotutako kontuak ere ikasi ditu Larreak. “Izarraitzen euria ari badu, bada-kigu denbora gutxian gurean izango dela, Tolosan ari badu, berriz, arraroagoa da alde hone-tara etortzea”.

► **ETORKIZUNA.** Baserrri munda-ren etorkizunari begira, Larreak uste du gaur egun ez dela “ba-tere erraza” baserritik bizitzea. “Erakundeek asko estutzen gai-tuzte eta exijentzia handiak daude. Lagundu beharrean, ba-serritarrek itotzen ari direla pen-tsatzten dut”, iritzi dio. Alkorta ere

pentsamolde berekoa da. Haren ustez, “baserritik bizitzeko gauza orijinalak egin edota kantitate handiko produkzioa egitea beha-rezkoa da”.

Kaletik baserrira bizitzera joan izanaz ez dela damutzen dio Larreak. “Baserrian lan asko egin behar den arren, lasaiago senti-tzen naiz hemen, lan hauetan. Gainera, egia esan, zerbait gerta-tuta ere, bertatik bertara nago Azpeititik”.

Alkortak, berriz, eguna baserriz baserrri igarotzen badu ere, orain-dik kalean bizi da. “Nire ametsa nekazal inguruan bizitzea izango litzateke, baina oso zaila ikusten dut. Garagartza Gain familiako baserria da, eta neronek baserrri bat erakitzea gehiegizko gastua izango litzateke”. ◀

JOAN...

Gurean ▶

ANJEL LERTXUNDI

▶ idazlea

“Bat-bateko jendea da azpeitiarra”

Alemaniako literaturaren inguruko hitzaldia eman zuen Anjel Lertxundik martxoaren 10ean, Aitonenan.

Aurrez izanda al zaude Azpeitian?

Bai, etorrita nengoen.

Nolakoak gara azpeitiarrak?

Ikasle garaian banituen lagun azpeitiarrak. Azpeitiko mutilak oso bat-batekoak direla nabari izan dut.

Literatur zaletasunik ba al dago azpeitiarren artean?

Literatur zaletasuna, Euskal Herriko beste toki askotan bezala, gutxi. Dena dela, Azpeitian egin izan den aldizkari literario bat ezagutzen dut: *Literatuzta*. Gustura irakurri izan ditut haren zenbaki guztiak. ◀



Altuna y Uriako kamioiei eraso

Martxoaren 14an Altuna y Uria enpresak Madalena auzoko harrobian zituen kamioiei eraso egin zieten. *AHT ez! Txikitzaileak* pintadak egin eta enpresako sei bat kamioiren gurpilak zulatu zituzten. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) egileetako bat da Altuna y Uria. Enpresak salaketa jarri zuen Erztaintzan.



‘Gu ta gutarrak’ jendetsua

Martxoaren 9an Azpetiko Gaztetxean *Gu ta Gutarrak* ikuskizuna izan zen eta herritar ugari bildu zuen. Xabi Borda idazle azpeitiarrak ere hartu zuen parte Korrika Kulturalaren baitan antolatutako ekimenean.


Larrañaga, Loiolako VI. Biatloiko irabazle

Mikel Larrañaga azkoitiarrak (argazkian) irabazi zuen martxoaren 17an San Jose festetan Loiolako VI. Biatloia. Aurtengo edizioan 47 partaide izan ziren; horietatik bi, emakumezkoak.



‘Beltza’ omendu dute trikitilariek

Luis Alberdi *Beltza* euskal dantza irakaslea omendu zuten martxoaren 18an Azpeitian Izarraitz pilotalekuan, sanjoseetako trikiti jaialdian. Alberdik 25 urte daramatza dantza irakasten.



- MARTXOAK 3** ▶ *Ez zara inoren panpina* kamiseta erakusketa udaletxeko beheko solairuan. **MARTXOAK 8** ▶ Emakumearen Eguna: elkarretaratzeta, Bilgune Feministak eta Emakume Taldeak deituta. **MARTXOAK 10** ▶ Bidezko merkataritza azoka, Parrokiko Misio Taldeak antolatuta. **MARTXOAK 11** ▶ Eskolarteko XX. ibilaldi neurtua. Ia 600 lagun. **MARTXOAK 16** ▶ Akatu taldearen kontzertua Orkatz Kultur Elkartearen. **MARTXOAK 18** ▶ Loiolan sanjoseak: asto lasterketa eta herri kirolak. **MARTXOAK 25** ▶ Korrika 15 herrian.

APIRILAK 12 ▶ *El séptimo continente* filmaren emanaldia, 21:30ean Betharramdarretan. **APIRILAK 13** ▶ *El vídeo de Benny* filmaren emanaldia, 21:30ean Betharramdarretan. **APIRILAK 21** ▶ Ikasberri VIII. Rallysprint, Azpeititik Bidegoianera (lehen partaidearen irteera 15:00etan). **APIRILAK 27** ▶ *Born into brothels* filmaren emanaldia, 21:30ean Betharramdarretan. **APIRILAK 28** ▶ Izarraitz Txistulari Taldea, 19:30ean udaletxeko arkupeetan. **APIRILAK 29** ▶ Kitarra taldea, 19:30ean udaletxeko arkupeetan.



XXX. UDABERRIKO ARGAZKI RALLYA.

Argazki zaletasuna dutenek urteroko hitzordua izango dute Urola Bailerako XXX. Argazki Rallyan. Gainera, aurten lehenengoz, kamera digitalarekin islatu beharko dituzte proposatutako sei gaiak. **APIRILAK 1** ▶ 9:00etatik 14:00etara ▶ Azpeitiko auzoetan ▶ Argazki Elkarteak antolatuta

AITOR GORROTXATEGI ▶ Azpeitiko Udaleko Kultura batzordeburua

“Leku, ordu eta egun aniztasuna dago Asteburu Musikaletan”

Apirilaren 22 eta uztailaren 14 bitartean musika entzuteko aukera ugari izango da Azpeitian. Urtero bezala, Asteburu Musikalak ekimenak musika talde desberdinen kontzertuak eskainiko ditu.

Aitor Gorrotxategi Udal Kultura batzordeburuak adierazitakoaren arabera, “herrian musika alorrean diharduten taldeekin ekingiza desberdinak antolatzea da ekimenaren helburua”. Gainera, kontzertuotan herriko musika taldeen eta kanpokan arteko trukea sustatzen dute. Gorrotxategik aurreratu duenez, “aurten, Udal Musika Banda Lantziegoko (Araba) Bandarekin ari da prestatzen trukea, adibidez”.

Kultura batzordeburuak aipatutakoaren arabera, “hartueman horiei esker, kanpoko taldeak gonbida-

tzen dira herrira eta, gero, hemengoak haien herrietara joaten dira”. Herriko taldeen arteko kolaborazioak ere izango direla iragarri du.

Egutegiari dagokionez, aniztasuna bilatzen saiatu direla dio Aitor Gorrotxategik. “Lehen, igande eguerdian antolatzen genituen musika kontzertuak, baina eguraldi onarekin emaitza ez zen ona”. Hortaz, aurtengo edizioan “leku, ordu eta egun aniztasuna eskaintzen saiatuko da Udala”. ◀

APIRILAK 22 (lehen eguna) ▶

Udal Musika Banda.

▶ 13:00etan .

▶ Udaletxeko arkupeetan.

▶ Azpeitiko Udalak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

2007-KO ASTE SANTUA
Iturri Txiki eta Txiki Txoko
Ludotekek antolatuta.

APIRILAK 10 ▶

▶ Piraten ginkana.

APIRILAK 11 ▶

▶ Bizikletan Urrestillara.

APIRILAK 12 ▶

▶ Txiki-Parkera eta
Kristinaenera irteera.



APIRILAK 13 ▶

▶ Herri kirolak.

APIRILAK 14 ▶

▶ Ikuskizuna eta merienda.





ehun urteko BATZOKIA

Azpeitiko Batzokiak ehun urte beteko ditu aurten. Erakusketa eta liburu bidez gogoratuko dute mendeurrena

▶ Testuak: Ane Aranburu ▶ Argazkia: Maider Zendoia

Azpeitiko Batzokia 1907ko abenduaren 1ean zabaldu zuten. Beraz, aurten 100 urte beteko dira. Azkoitiko Batzokia ere urte berean ireki zuten, martxoaren 31n. Ondorioz, bi herrietako EAJko kideek ekitaldi sorta bateratua antolatu dute apirilera.

Ospakizun hori dela-eta, Azkoitiko eta Azpeitiko EAJk erakusketa antolatu dute bi herriotan. Martxoaren 31n inauguratuko dute Azkoitiko Torre Zuri erakustokian, eta bertan izango da ikusgai apirilaren 15era arte. Apirilaren 20tik maiatzaren 6ra arte, berriz, Azpeitiko udaletxe azpiko aretoan izango da.

Batzokiak 100 urtean izandako ibilbideari erreparatu egin nahi dio *Azkoitia-Azpeitia, abertzaletasunaren 100 urte* izenburupean antolatutako erakusketak. "Erakusketan denetik pixka bat egongo da", dio Eneko Sanz erakusketa-aren antolatzaileetakoak. Garaiko argazkiak, ikurrin zaharrak, hainbat erakunderen argazkiak... lku-entzunezko bat ere lortu dutela azaldu du Sanzek.

Orain arte lortutako agirien artean, Espainiako Gerran tropa

faxistak Azkoitira sartu zireneko argazkia azpimarratu du Sanzek, 1936ko irailaren 20an ateratakoa. Irudi gehiago lortu nahian, herritarrek dituzten agiriak aurkezteko dei egin du.

▶ **LIBURUA.** Erakusketaz gain, batzokien mendeurrena gogorazteko beste egitasmo bat ere jarri dute martxan: abertzaletasunaren eta batzokiaren historia laburbiltzen duen liburua kaleratu nahi dute abendurako. Eneko Sanz historialaria da liburua egiteko ardura hartu duen pertsona. "Abertzaletasuna nola sortu zen eta izan duen bilakaera azaltzea da liburuaren bitartez irakurleari eskaini nahi dioguna", dio. "Aber-

Erakusketa

Izena. *Azkoitia-Azpeitia, abertzaletasunaren 100 urte.*

Noiz. Apirilaren 20tik maiatzaren 6ra arte.

Ordutegia. Ostiraletan (18:00-20:00), eta larunbata, igandea eta jai egunetan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).

Non. Azpeitiko udaletxe azpiko aretoan.



Gaur egungo Azpeitiko Batzokiaren kanpoaldea, Olazko Amaren plazan.

tzaletasunaren sorreran karlisten eta liberalen arteko borroka izan zen. Bi bando horien artean abertzaletasuna nola joan zen sortzen azaldu nahi dugu".

Garrantzia, batzokiaren sorrera garaiari eman nahi diola aitortu du Sanzek. Hori izango da liburua aurreneko zatia. Bigarren zatia, gerra garaiari dagokiona

izango da. Eta, hirugarrena, berriz, "zapalkuntza garaia edo diktadura bezala ezagutzen duguna". Liburua hiruzati horiekin osatuko du historialariak. "Egungo demokraziara iritsita, abertzaletasunak bide desberdinak hartu ditu eta nahiago izan dut batuta egon gineneko garaiak gogoraztea". ◀



ARMATUAK ASTE SANTUKO PROZESIOAN

Ostiral Santuko prozesioan armatuek irteten zuten antzina Azpeitian. Urteen poderioz, usadioa galdu egin zen, baina oraindik badaude tradizioari lotuta jarraitzen duten esamoldeak. Hala, prozesioaren lehengo ibildearen (Zelai Luzetik) inguruko esaerak bizirik dirau oraindik: "Txikito [prozesioan Jesusen irudia zigortzen duten bi pertsonaiei herrian emandako izena] haizea Enparan zubitik pasatu arte ez duzu kenduko berokia".

► Testua: Mainer Zendoia ► Argazkia: Leire Larrañagak utzita

Efemerideak ▶ apirila



Euskal Eskola Nazionalaren eguna Azpeitian, 2002an. AZPEITIKO EFEMERIDEAK

pausoz pauso AURRERA

Film estreinaldia, jesuitak kanpora, musika banda berria... herria ez da geldirik egon

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

APIRILAK 1-1557 ▶

Herriko armarrria. Herriaren sarrera nagusiko armarrria egiteko Domingo Rezabal maisuarekin egin zuten eskritura.

APIRILAK 3-1947 ▶

Musika Banda lehenengoz. Ostegun Santu egunez kaleratu zen lehen aldiz San Inazio Loiola Musika Banda.

APIRILAK 4-1767 ▶

Jesuitak kanpora. Jesuitak Loiolatik atera ziren.

APIRILAK 10-1907 ▶

Ganadu hiltegiko obrak. Lanok Joxe Mari Aldalurri ematea erabaki zuten.

APIRILAK 12-2002 ▶

Danborjole berriak. Azpeitiko Udaleko Festa Batzordeak San Sebastian bezperan danborra jotzen atera nahi zuten talde berriei zuzendutako deialdia egin zuen.

APIRILAK 21-2002 ▶

Euskal Eskola Nazionalaren Eguna. Ikasberri Azpeitiko Ikas-



Mateo Txistu-ko kideak. ZINE KLUBA

tolak antolatutako ekimenera Euskal Herriko ikastolen elkarteak osatzen duten bost lurraldeetako ikastola bana etorri ziren.

APIRILAK 24-1987 ▶

'Mateo Txistu'. Azpeitiko Zine Klub Elkarteak *Mateo Txistu* filma estreinatu zuen.

APIRILAK 29-1912 ▶

Ur gabezia. Uren Batzordeak baldintza batzuen berri eman zuen, urritasuna herritarren gehiegikerian oinarritzen zela eta ez ur faltan adierazita. ◀

Pertsonaia ▶

JOXE AGIRREK 78 URTE.

Joxe Agirre bertsolaria 1929ko apirilaren 13an jaio zen Azpeitiko Oranda baserrian. Gaztetan inguruko auzoetan abesten ibili bazen ere, Aginagako txapela eskuratu ondoren (1959. urtean) hasi zen "plazak benetan egiten", berak esaten duenez.



Datua ▶

15

URTE UEME SORTU ZUTELA.

Urola Bailarako Merkatarien Elkarte (UEME) 1992ko apirilaren 8an aurkeztu zuten jendaurrean. Erakundeak Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako 67 denda biltzen zituen sortu zenean. Gaur egun, hiru herrietako 68 denda dira UEM Eko kide.

Argazkia ▶



NUARBE, 30 URTE SOKATIRAN.

Nuarbe Sokatira Taldea 1978. urteko urrian plazaratu zen lehen aldiz txapelketa nagusi batean. 1980. urtean atera zen taldea atzerrira aurrenekoz, eta geroztik hainbat txapelketetan parte hartu izan du. Garaipenak, ugari. Argazkian, Nuarbeko kideak.

Kontua da... ▶

Derrigortuta alkatetzan



Imanol Elias
Odrizola

Lehen berdin izango zen dudarik gabe eta orain ere pareko... Agintaritza eskuetan izatea berezko ametsa dugu gizakiok, guztiok balio ez badugu ere. Hala ere, askotan gizakiak izateari utzi eta pizti bihurtzen garela dirudi, elkarri mokoka...

Azpeitian, 1875eko urtearen lehen egunean izendatu zuten Atanasio Mari Larrar alkatetzarako, baina hark adierazi zuen ezin zuela alkate kargua bere gain hartu. Alkate berriak adierazi zuenez, hiru bat ordu laurdeneko bidea zuen herriaren erditik bere etxera eta, ondorioz, ezinezkoa egingo zitzaion garaiak eskatzen zuen arreta jartzea egin beharreko lanean. Bestalde, 63 urte zituela-eta, bere kargurako beste norbait izendatzeko eskatu zuen.

Gainerako agintariek ez zituzten onartu adierazitako arrazoiak eta, azkenik, alkatetza bere gain hartuko zuela argitu zuen Larrar jaunak. Ezaugarri makila jaso

ondoren, bere tenienteari eskaini zion herrian egoteko aukera izan bitartean. Ondoren, parrokiara pasatu ziren guztiak eta karguaren zina egin zuten. Ondorengo lehen udalbatza Lukax Etxeberria tenienteak zuzendu zuen, Larrar jauna ez baitzen agertu. Derrigorrean bizkarreratutako alkatetza zuen eta, itxura denez, guztia bertan behera uzteko gestioak egiten ari zen. Urtarrilaren 21eko udalbatzan eman zuten ezagutzera Larrar jaunak alkatetza uzteko lortutako baimenaren berri, eta hil bereko 24an egin zuten hautaketa berria.

Hautaketa egin ondoren, Benantxio Akutain aukeratu zuten alkate, ohikoa zen bezala zin egirik ondoren bere kargua ongi betetzen ahaleginduko zela. Larrar jauna, alkate derrigortua, aski zen azkenik... Derrigortu beharreko alkaterik izango al da berehala ospatuko diren hauteskundeetan?

Garai bateko Azpeitia ▶ Juan Mari Alkorta kontatua

erretiroa HERRIAN

Juan Mari Alkorta jaiotzez azpeitiarra da. Gasteizen bizi izan bazen ere, erretiroa hartu ondoren herrira itzuli zen.

▶ Testua: Mainer Zendoia

Juan Mari Alkorta haurtzarora eta gaztarora Azpeitian igaro zituen arren, 30 urtean Gasteizen bizitzen egona da. Dena den, herriari lotutako oroitzapen ugari du. Izan ere, umetan Espainiako Gerra garaia bizitzea tokatu zitzaion herrian eta, erretiratu ondoren, zinegotzi izan zen.

“Gu gerra ondoren izan ginen gazteak, eta hura oso denboraldi gogorra izan zen”, dio Alkorta. “Gaur egungo Gogartetxean hotela genuen, eta gerra ondoren handik bidali gintuzten, bertan kuartela zabaldu nahi zutelako”. Gerra bukatzean, kanpora joan zen ikastera eta ezkondu ondo-

ren sei urtean egon zen bizitzen Azpeitian. “Ezkonberritan, etxeko dendetan egin nuen lan. Gure familiak ‘Irazu’ izeneko oroigarrien dendak zituen Loiolan eta Zestoako bainuetxean”, gogoratzen du. “Gerorxeago, kontabilitatea ematen egon nintzen fabrika batean eta Azpeitiko Institutu Laboraleko irakasle ere izan nintzen”.

“Gegasak Everest igotzeko saiakera egin zuen ‘Tximist’ espedizioa antolatu zuen; nik han egiten nuen lana”

JUAN MARI ALKORTA ▶ erretiratu



Joxe Takolo —laukian sartuta—
1980an, Everest espedizioan.

Ondoren, Gasteizen aurkitu zuen lana eta han igaro zituen 30 urte.

Gasteizen lanean zegoela, mendizaletasunari lotutako esperientzia on bat bizitzeko aukera izan zuen. “1974an Everestera igotzeko saiakera egin zuen Tximist espedizioa antolatu zuen Cegasa enpresak eta nik bertan egiten nuen lana”. Espedizio hark ez zuen gaina lortu, baina bai beste batek, 1980an; Joxe Urbie-ta Takolo azpeitiarra kide zuen espedizioak, alegia. “Horrek poz handia eman zidan”.

▶ ZINEGOTZIA UDALEAN.

Erretiratu ondoren, Azpeitira itzuli zen bizitzera eta zinegotzi izan zen. Esaten du orduantxe iritsi zela herria “ondo” ezagutzera. Orduetik gogoan du artean udal-txean zen Eibarko arkitektoak Sanjuandegiri emandako izena: “La universidad de los carteros esaten zion, han eskutitzak banatzen zituenak Londresen ere asmatuko zuela esaten zuelako”.

Gaur egun, paseoa-eta igarotzen du Alkorta. ◀



Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendaratea)	943 31 69 99
Noticias (berriemaile)	687 60 50 06
DV (berriemaile)	943 15 09 94



Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaile)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)	Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
EA	81 00 11	Kontseilua	943 59 12 00
PSE-EE	15 72 00		
PP	15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauzez ▶ apirila

1-11-27 Garcia (Azpeitia). 943 81 12 74	10-14-15-26 Alberdi (Azpeitia). 943 81 59 74	12-23-28-29 Jacome (Azpeitia). 943 08 02 58	13-25 Beristain (Azpeitia). 943 81 19 49	24 Aranburu (Azpeitia). 943 81 13 50	2-5-6-7-8-9-20 Jaen (Azkoitia). 943 85 06 60	3-4-16-21-22 Azpiazu (Azkoitia). 943 85 29 89
--	---	--	---	---	---	--



Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:30

UDALTZAINGOIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	09:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

BOLUMEN HANDIKO HONDAKINAK JASOZ.

Bolumen handiko hondakinak kanporatzeko bi aukera daude: alde batetik, astero, ostegun gauean utzi daitezke ohiko edukiontzien ondoan; bestalde, 943 36 75 34 telefono zenbakira deituta, etxeetara joaten dira hondakinak desmuntatu eta jasotzera.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarrria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR 85 27 18	EUSKO TREN 902 54 32 10	GUIPUZCOANA 85 11 59	PESA 21 26 99	PIPER ELK. 85 25 87	TAXIAK 81 13 07
----------------------------	-----------------------------------	--------------------------------	-------------------------	-------------------------------	---------------------------

ITSASO ARAMENDI ▶ ikaslea Catanian (Sizilia, Italia)

Historia ikasteko Catania leku ona iruditu zitzaidanan”

▶ Testuak: Mainer Zendoia ▶ Argazkiak: Itsaso Aramendik utzita

Itsaso Aramendi Catanian ari da ikasten. Argazkian, bertako sinbolo den *liotru*-ren ('elefantea' siziliarrez) aurrean.



ITALIARI BEGIRATUA ▶

Herrialdea. Italia.
58.751.711 biztanle.

Hiriburua. Erroma.
2.823.201 biztanle.

Catania. 313.110 biztanle.

Industria. Munduko estatu industrializatuenetakoa da.

Hizkuntza. Italiarra. Aostan frantsesa koofiziala da eta Tirol hegoaldean alemana.

Itsaso Aramendi Historiako ikaslea da eta, Erasmus programari esker, Italiara joan da, Catania hirira (Sizilia), hirugarren maila ikastera.

Noiz iritsi hintzenan?

Irailaren erdialdera etorri nindun Catanian. Siziliako ekialdeko kostan zagon, Etna sumendiaren azpian. Siziliako bigarren hiria dun eta Italiako zortzigarrena.

Zer dela-eta aukeratu hunan Sizilia?

Istoria luzea dun. Hasiera batean, Hego Ameriketara joatea zun nire asmoa, baina arazoak izan nitin eta, azkenean, ezin izan ninan joan. Hirugarren ikasturtea kanpoan egiteko ideia ninan eta Catania leku ona eta interesgarria iruditu zitzaidanan.

Ze alde dago Siziliaren eta Euskal Herriaren artean?

Ekonomikoki, alde handia; Catanian %20tik gorako langabezia diten. Kliman ere alde handia zagon, negua askoz ere leunagoa dun eta udan bero gehiago egiten din. Autoa nola gidatzen duten ere ikustekoa dun; 'stop', aholku bat baino ez dun!

Zer moduz italiarrekin?

Ondo moldatu naun hemengo jendearekin, oso irekiak ditun eta, gainera, kanpoko jendearekin ohituta zauden. Lehen unetik jende berria etxean hartu eta laguntzeko prest zauden.

Zerk harritu hau gehien?

Italiako eta Europako beste tokiekin dituen diferentziak. Sizilia Italiaren desberdina izatea espero ninan, baino ez pentsatzen horrenbestearainoko aldea egongo zenik. Gauza askotan Afrikako hirien antz handia diten: jendearen izaeran, kulturen...

Azpeititik zer botatzen dun faltan?

Familia, lagunak eta Orkatzeko egonaldiak. ◀

HANGO JENDEA.

Itsaso Aramendi oso gustura sentitu da cataniar artean. "Hemengo jendea oso irekia dun, nahiz eta nahiko iskanbiltsuak izan bozinarekin eta builekin, adibidez", dio. Haren ustez, "klimaren eraginez kaleko bizitza asko egiten diten. Antzematen dun Mediterraneo delata".

Zaindu ▶ Urrak

Julian
Berezia



Mila pertsonetatik bostek urrari alergia omen diote: tolerantzia eza, azkura, egonezina orokorrean, arnasten arazoak eta baita zorabioak ere sortzen dituela. Substantzia hori bera aurki daiteke sagar, intxaur edo melo-kotoietan.

Baina zorteko gara: arrisku hori saihesteko txertoa aurkitu dute.

Irakurri dudanez, ekaitz egunetan tximistak inoiz ez dio erasozten urritzari, baina ni sinesgaitza naiz kasu horretan. Nire gurasoen etxe inguruan urritz politik hazi izan dira eta, urteak igaro ahala, kimu berriak irteten zaizkie.

Erregularitasunez urrak jatea interesgarria da odoleko kolesterola kontrolatzeko, bihotzarentzat osasungarriak diren koipe asegabeak dituzte-eta (jangarri denaren %54).

Kaloria maila altua dute: dozena erdi arrautzek adina energia ematen digute. %5 azukre dute eta zuntz edo hondakinen zifra on bat, idorrearen aurka baliagarria izango dena.

Hesteetako zizareak ditugunean ere urren eragina ziurtatuta dago. Tentsioa jaisteko eta burdin ezagatik anemia sendatzeko ere gomenagarriak dira. Urren olioia elikaduran erabil daiteke, baita botiketan ere.

Zer gehiago eska diezaiokegu gure bide ertzak mugatzen dituen zuhaiska basati horri?

IÑAKI AGIRREZABALA ▶

otargina

Afizioa ala ogibidea da zurea?

Ogibidea.

Egindako piezarik kuttunena?

Pilotak aukeratzeko bi saski batean zituen pieza.

Zein da otargintzarako oinarritzko lanabesa?

Matxetea beharrezkoa da.

Piezak, barnizatuta edo gabe?

Barnizatu gabe politik badira ere, barnizatuta gehiago irauten dute.

Gaztainondoa, hurritza... zein nahiago?

Sei edo zazpi urteko gaztainondotik ateratzen dugu zumitza.

Makina ala eskulana?

Eskulanak grazia handiada du, nahiz eta akats gehiago izan.

Zenbagarren otargin belaunaldia da zurea?

Nire aitonen aita hasi zen ofizioan.



▶ Testua: Maider Zendoia ▶ Argazkia: Ainitze Agirrezabala

Abizena ▶ Ugarte

Armarria.

▶ Nafarroa aldetik etorritako abizena da.

Banaketa semantikoa.

▶ Ur eta tarte hitzek osatzen dute Ugarte abizena.

Esanahia.

Uren tarte esan nahi du; hau da, uhartea. Beraz, Ug- (ur) eta -arte (tarte) hitzek osatzen dute.

Abizenaren jatorria.

▶ Uharte-Arakil (Nafarroa).

Abizenaren kokapena.

▶ Amezketak (Gipuzkoa).

▶ Lazkao (Gipuzkoa).

▶ Lizartzak (Gipuzkoa).

▶ Ormaiztegi (Gipuzkoa).

▶ Oiarzun (Gipuzkoa).

▶ Bergara (Gipuzkoa).

▶ Balmaseda (Bizkaia).

▶ Erandio (Bizkaia).

▶ Orozko (Bizkaia).

▶ Durango (Bizkaia).

▶ Audio (Araba).

▶ Huarte-Arakil (Nafarroa).

▶ Tafalla (Nafarroa).

Abizenaren hedapena.

▶ Xerez de la Frontera (Andaluzia, Espainia).

▶ Benazuze (Andaluzia, Espainia).

Esandakoa ▶

“ Ez da gauza bakarra hutsegina duena; gauza asko ondo ez egitearen ondorioa da; jokalaririk badugu erantzukizuna ”

MIKEL LABAKA ▶

Realeko futbol jokalaria

“ Oso gogorra da seme bat galtzea, baina gogorragoa da nola hil zuten pentsatzea ”

MARIA JESUS SALEGI ▶

Josu Zabala etakidearen ama (1997an hilda azaldu zen Josu)

Zenbat ▶

557

HAUR MENDIAN.

Eskolarteko XX. Ibilaldi Neurtuan eskualdeko 557 gaztek hartu zuten parte martxoaren 11n Azepeitan.



Gertuko pasadizoa ▶

musikarentzat ETXE BILA

‘Urrestillako musika taldeak’ liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Uztarria
▶ 2006 ▶ Egilea: Asier Sustaeta



KAPITULUA ▶ Hasiara (11. orrialdea)

1987ko urte hartan, Azpeitian Kaka Flash irrati librean saio bat egiten zuen gazte talde batek, musika taldea osatzea erabaki zuen.

Inork gutxi zekien garai hartan zer bait musikaz; entzuten zutenaz gain, jakina. Batek herriko bandan ‘tanborilero’ lanak egiten zituen, hura baterijolea izango zen eta besteak...

–Hik gitarra, hik baxua eta hik abestu.– Horrelaxe, askorik pentsatu gabe.

Taldekide baten garajejan hasi ziren musika jotzen ikasteko ahaleginak egiten, baina laster nazkatu ziren haren gurasoak garajeko bateri hots eta gitarra burrundaraz. Horrela, Azpeitiko Udalera jotzea erabaki zuten. Ibon Odrio-

zola izan zen aurreneko harreman haietan parte hartu zuenetako bat.

–Garai hartan, gu 14 urteko lau katu ginen, eta nork egiten die kasu 14 urteko ume batzuei?–, dio Ibonek berak.

Egia esan, ez ziren harreman errazak izan. Ederki gogoratzen da horretaz Ibon.

–Urte hartan ia egunero-egunero joaten nintzen udaletxera, baina beti izaten ziren arazoren batekin, “etorri bihar”, “deitu geroago”, “hurrengo astean pasa zaitez eta beti horrelako erantzunen bat. Gutxienez berrehun aldiz joan nintzen, benetan.

Eta, halako batean, Udala Soreasu aldean lokal bat uzteko prest omen zegoen. Lokal

hura, ordea, etxebizitza batzuen azpiko lokala zen eta hirugarren arratsalderako Julian Arruti Oriyo udaltzaina ate-joka zuten, goiko bizilaguna eguneroko lo-kuluxka ezin eginda omen zegoelako.

Arazo horiek aurreikusita, gazteek euren proposamena luzatu zioten Udalari.

–Beste herrietako informazioa heldu zitzaigun, eta mugimendu politak entzuten genituen.– esaten du Aitor Egigurenek.

–Guk ere lokal duin bat eskatzen genuen. Garai hartan hutsik zegoen tren geltokia eta hango komunak egokitzea izan zen gure helburua.

Bertara joan eta segidan iritsi zitzaigun berrietara Urrestilla aldean bazela lokal bat, eliz atzeko kalean, inork ez omen zuena erabiltzen. Segituan hura eskatzera jo genuen.– gehitu du Ibon Odriozolak.

Udalak onartu egin zien eskaera. Orduan hasi zen hango historia. Eta ez Udalak eta ez gazteek orduan ez zuten pentsatu ere egingo lokalak hartuko zuen dimentsioaz; gainditu egin dira aurreikuspenak, helburuak. Adibidez, lokala gaur Triku Musika Elkartearen egoitza da, urteetan hainbat eta hainbat musika taldek bertan entseatu eta grabatu dute... bateri eta anplifikadore artean. ◀

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

Arana, 5
AZPEITIA

ERLOJU
KONPONKETAK
Tel.: 943 81 47 12



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943 15 16 40



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25



INFORMATIKA ZERBITZUAK



ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA

- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINZA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.: 943026428 Fax.: 943026329
email: etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

Hitz gezidunak ▶

	Itotzeko modukoak ▼	Iskanbila ▼	Motz ▼	Batel gidariak ▼	Nafarroako herria
	Intsektu mota	Beldur-garri	Ez ezin (Zah.) Zakur	Hektarea	
	Oztopoak ipini				
	Zakotea				
Eraikuntza ▼	Diosala ▼			Nork atzikia	
* DEITURA	* IZENA			Argala	
			Lore		
			Adi ezan!		
Neguko jantzia				Leku hartan	
Bidarraiko				Titanioa	
					Amerizioa
Errep., fruitu mota		Irdioa	Eztena		
Mihia		Galioa	Ba..., baneuka		
				Memoria mota	
				Bokala	
Toka, noa			Memenuak		●

* Azpeitiar txirrindularia


Hizki zopa ▶ aurkitu beheko irudietan ageri diren Elosgiak auzoko baserri izenak




A	Z	I	R	E	K	A	Z	E	N	D	O
S	M	A	G	L	U	M	I	R	T	A	H
O	A	R	O	M	A	Z	L	A	D	L	E
M	X	T	H	U	A	Z	A	T	A	O	A
K	I	A	R	G	U	A	G	I	P	G	R
N	E	P	I	Z	E	H	E	D	E	A	H
T	E	R	R	I	G	A	R	R	A	P	I
I	R	A	Z	U	S	B	D	U	Z	T	A
E	A	B	D	I	T	E	I	G	A	R	R
K	R	I	L	O	S	H	T	N	A	I	R
R	E	K	O	K	E	U	X	N	E	Z	E
A	B	A	L	I	A	S	O	U	M	A	G
L	D	M	I	S	R	I	N	L	G	A	I
P	S	O	G	U	B	E	T	X	A	A	S

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN MARTXOKO ARGAZKI LEHIAKETA



Zer dago gaizki?



Jexux Alberdi Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 82. irabazlea. **Urkeko** argazki-handitze txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Jexux Alberdi –ezkerrean– eta Nagore Iriarte, Urkeko argazkilaria.

ERANTZUTEN EPEA ▶

Apirilak 20 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Yuritz zapata dendako oparia

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA


Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabaturako bideoen kopiak egiten dira



 81 53 35



Ezkerretik eskuinera, Karina Chuquimarca, Sandra Teston, Latifa Azaoum, Maria Ameer Janad, Ana Carolina Pereira eta Paula Gomez, Azpeitian, Zapo Txokon.

etorri eta euskaldun BIHURTU

Jatorri desberdineko sei gazteak interes berak lotzen ditu: euskal hiztun gisa bizi nahi dute Azpeitian.

► Testuak eta argazkiak: Maider Zendoia

Jatorrizko herrialdea atzean utzi, eta bizi eta lan egiteko Azpeitia aukeratu duten pertsonak badira gurean ere. Euskal Herriko txoko honetara iritsi eta egunerokotasunari kultura, ohitura eta hizkuntza desberdinarekin eutsi behar izan dioten pertsona horiek pixkanaka ari dira gizarteratzen herrian.

Azpeitian bizi diren sei etorkin gazterekin izan da Uztarrria. Eurekin hitz egin du euskarari buruz, herriaz, kulturaz eta etorkizunaz, besteak beste. Urte gutxiren bueltan euskal hiztun bilakatu edota bilakatzeaz dauden sei gazteren testigantza da honakoa.

Azaoum

Euskarazko hitza. Kaixo.
Esamoldea. Hortzak erakutsi.
Herriko ohitura. Ez dakit.
 Neurekoa: ezkontza egunean eskuak henaz margotzea.
Pertsonaia. Sami Yusuf abeslaria.
Festa. Sansebastianak.
Herriko leku bat. Loiola.
Abestia. Paulina Rubioren *Ni una sóla palabra*.
Ametsa. Osasun alorreko zerbait ikastea.

ziren errazak izan harentzat. "Lehen egunetan oso hizkuntza zaila iruditu zitzaidan euskara eta ikasteko gogo handirik ez nuen. Baina gero, pixkanaka ikasi egin dut", dio. Euskara ikasteko prozesua uste zuena baino errazagoa izan dela aitortzen du.

Latifa Azaoumek hizkuntzak ikasteko abilezia berezia du. Dagoeneko sei hizkuntza hitz egiten ditu: arabiera, berebera, frantseza, ingelesa, euskara eta gaztelera. Esaten duenez, jatorrizko hizkuntzaren (arabiera) eta euskararen artean dagoen desberdintasun handiena, arabiera eskuinetik ezkerrean irakurtzen dela eta euskara, berriz, alderantziz. Ahoskeran ere desberdintasun handiak dituztela uste du.

Eguneroko bizitzan euskara erabiltzen saiatzen da. "Herriko dendetara joaten naizenean, nik euskaraz eskatzen dut eta dendariak gaztelera erantzuten didate. Pentsatzen dute nik gaztelera soilik dakidala, baina gero nik euskaraz jarraitzen dut eta, azkenean, euskaraz erantzuten didate dendariak-eta".

KARINA CHUQUIMARCA ▶
 Pallatanga (Ekuador)

"Hasieran zaila egin zitzaidan, baina orain ez"



Karina Chuquimarca 2003an etorri zen Azepeira. Dagoeneko lau urte daramatza herrian eta oso

Chuquimarca

Euskarazko hitza. Kaixo.
Esamoldea. Aio!
Herriko ohitura. Ez dakit.
Pertsonaia. Mikel Aranburu Realeko futbol jokalaria.
Festa. Sansebastianak.
Herriko leku bat. Sanjuandegi.
Abestia. Pirritx eta Porrotxen *Maite zaitut*.
Ametsa. Nire aiton-amonak Azepeira etortzea bizitzera.

gustura bizi dela aitortzen du. "Azepeira iritsi aurretik banekien hemen euskaraz hitz egiten dela, amak esan zidalako telefonoz. Gainera, hona etorri aurretik zenbait hitz erakutsi zizkigun euskaraz; 'kaixo', adibidez". Karinak dioenez, bazekien Azepeira iritsi aurretik hemen euskaraz hitz egin beharko zuela.

"Hasieran, herrira etortzean, euskara oso arraroa egin zitzaidan, oso hizkuntza desberdina iruditzen zitzaidan". Gero, pixkanaka hasi zen euskara ikasten eskolako laguntzari esker. "Hasieran zaila egin zitzaidan euskara ikastea, baina gaur egun ondo moldatzen naiz. Euskara ikastea beste hizkuntza bat ikastea bezala da niretzat", dio.

Haren anai-arrebek ere badakite euskaraz hitz egiten, baina euren artean erdaraz hitz egiten dute. Dena den, eskolan eta lagunartean euskaraz aritzen dela dio.

PAULA GOMEZ ▶
 Mendoza (Argentina)

"Kalean ez da hitz egiten eskolan irakasita bezala"



Paula Gomez orain hiru urte etorri zen Azepeira bizitzera. 11 urte zituen ezagutzen ez zuen hizkuntza hitz egiten den herri batera iritsi zenean. "Lehen aldiz entzun nuenean jendea euskaraz hitz egiten, hemen oso azkar hitz

Gomez

Euskarazko hitza. Semea.
Esamoldea. Hil; Epa!
Herriko ohitura. Kalera irtetea eta bertsoak.
Pertsonaia. *Wazemank* telebista saioko aktoreak.
Festa. Saninazioak.
Herriko leku bat. Enparan Dorretxea.
Abestia. Ken Zazpiren *Ilargia*.
Ametsa. Etxea eta autoa erosi, eta abokatu izatea.

egiten dutela ohartu nintzen. Guk Argentinan lasaiago egiten dugu".

Klasean hasi zen euskarazko lehen hitzak ikasten. "Irakasleak ikasgaia euskaraz azaltzen zuen, baina gero guregana etorri eta gazteleraz laburbiltzen zigun esandakoa". Hala ere, uste du urteen poderioz erraz moldatu dela euskaraz hitz egitera. "Lehen urtean euskaraz eta gazteleraz azaltzen zidaten ikasgaia, bigarren urtean dena euskaraz ematen zidaten eta pixka bat kostatu egin zitzaidan, baina hirugarrenorako moldatu egin nintzen".

Kalean egiten den euskara eta ikastetxean ikasten ari dena desberdinak direla iritzi dio. "Batzuetan, guk ikasi dugun bezala ez dituzte ahoskatzen hitzak kalean. Eskolan euskara batua ikasten dugu, baina gero, kaleko hizkerarekin harremanetan gaudenez, zenbait hitz geratu egiten zaizkizu". Bera argentinarra izanda, herrian dituen lagunei 'che' eta 'pibe' bezalako hitzak irakatsi dizkie.

Gaur egun, euskararen eta gaztelera erabilerari dagokionez, gauza bitxi bat gertatzen zaiola aipatu du: "Euskarako klaseetan gaztelera hitz egiten dut eta gaztelerazkoetan, berriz, euskaraz. Azkenean, nahastu egiten naiz...".

Oro har, euskaraz hitz egiten du gelakideekin, baina batzuetan kostatu egiten zaiola-eta, gazteleraz mintzatzen dela dio. ▶▶



LATIFA AZAOUM ▶
 Tanger (Maroko)

"Dendetara joaten naizenean euskaraz eskatzen dut"



Latifa Azaoum 15 urte zituela etorri zen Azepeira bizitzera; 2004ko urrian, hain zuzen. "Hona etorri

aurretik ez nekien euskara existitzen zenik ere. Nire aitak –herrian lehenagotik zegoen– gaztelera hitz egiten zuen. Beraz, Azepeira iritsi eta lehen egunetan beste hizkuntza bat ere hitz egiten dela ohartu nintzen: euskara". Azepeira igarotako lehen egunak ez

» MAIDER LOPETEGI ▶ Hizkuntza Indartzeko Programako Irakaslea (HIPI) Iraurgi Ikastetxean

“Hizkuntza beharrezkoa da akademikoki aurreratzeke”

Maider Lopetegi Hizkuntza Indartzeko Programako Irakaslea (HIPI) da Azpeitian Iraurgi Ikastetxean eta, haren eginkizuna, ikastetxera iristen diren ikasle etorkinei harre-ara egin eta haiei euskara irakastea da.

“Alde handia dago etortzen diren haurren adinen artean”, dio Lopetegik. “Lehen zikloan etortzen direnak txikiak direnez, haiek askoz ere errazago ikasten dute euskaraz eta, ondorioz, errazago gizarteratzen dira ingurukoekin”.

“Txikien kasuan, hasieratik jartzen dizkiete liburuak eta beharrezko material gutzia euskaraz”. DBHn, berriz, liburuak gazteleraz izaten dituzte. Lopetegiren ustez, “maila horretan, hizkuntza ikasteko beharraz gain, akademikoki garatzea ere lehenetsi behar da”.

Lopetegik uste du, orokorrean, akademikoki ondo moldatzen diren ikasleak ederki integrazten direla. “Hizkuntza ez da oztopo bakarra. Maila akademikoa ere hor dago”.

Gizarteratzea ondo burutzen bada, etorkinek euskara ere ikasi egingo dutela dio Iraurgiko irakasleak. “Hona etorri eta bertako jendearekin integratutako jendea badugu guk, bi urtean euskara ikasi duena”. Alderantzizko kasua ere ematen da. “Kanpotik etorri eta hemen euren artean bakarrik erlazionatzen diren taldeak badaude; horientzat euskara, eskolako hizkuntza baino ez da”.

Ikasle etorkinei euskara irakasteko argitaratutako material gutxi dagoela dio. Ondorioz, ikastetxean bertan egindako hiztegi txikiak, marrazkiak eta jolasak erabiltzen dituzte etorkinei euskara irakasteko. Aurrera begira, hutsune hori bete beharko litzatekeela uste du.

SANDRA TESTON ▶ Torrejoncillo (Espainia)

“Oraindik ez dut asko hitz egiten euskaraz”



Sandra Teston orain dela bi urte etorri zen Azpeitira bizitzera, 10 urte zituela. Familiartekoak bizi zituen herrian eta ez zitzaion askorik kostatu bertara egokitzea. Hemen euskaraz hitz egiten dela bazekien etorri aurretik. “Hona etorri nintzenean hitz solteak nekizkien euskaraz, udaran Azpeitian izaten nintzelako”.

Euskaraz ‘s’ letra nola ahoskatzen den entzuteak harrituta utzi zuen. “Euskara ikastea kostatu egin zait. Pixka bat zaila egiten zitzaidan hizkuntza menderatu gabe klaseak jarraitzea”, dio. “Ahoskera harrapatzea ere kostatu egin zitzaidan; ‘x’, ‘ts’, ‘tx’ eta ‘tz’ letrak, batik bat”.

Gaur egun, lehengusuarekin eta kuadrilako jendearekin hitz egiten du euskaraz. “Oraindik ez dut asko hitz egiten eta lagunek esaten didate hasteko euskaraz mintzatzen. Klaseko jendearekin ere batzuetan euskaraz aritzen naiz”.

Euskaraz hitz egiteko orduan, euskara batua eta Azpeitiko hizkera nahastu egiten ditue-

la esaten du. “Nire lagunek azpeitiarrez hitz egiten dute eta, ondorioz, haiek esandako hitz batzuk geratu egiten zaizkit”. Dena den, hori gazteleraz ere gertatzen zaiola aipatu du.

Azpeitian gustura bizi da eta aurrera begira, lagunek esaten dioten bezala, euskaraz gero eta gehiago hitz egitea gustatuko litzaioke.

ANA PEREIRA ▶ Lisboa (Portugal)

“Euskaraz, gazteleraz eta portugesez hitz egiten dut”



Ana Carolina Pereira de la Silva aurtengo ikasturtean etorri da Azpeitira bizitzera. Denbora gutxi darma herrian eta oraindik ez da erraz moldatzen euskaraz. Hala ere, erraz egin ditu lagunak eta ez zaio jolaserako lagunik falta inguruan.

“Hemen bizitzen aurten geratu garen arren, lehenagotik bertan egondakoa naiz”. Ondorioz, bazekien euskaraz mintzatzen direla azpeitiarrak.

Euskara hizkuntza zaila iruditzen zaio hari, baina dagoeneko hasi da esaldi motzak bada ere euskaraz esaten. Hala, ‘egun on’, ‘arratsalde on’, ‘kaixo’, ‘aio’ eta



Teston

Euskarazko hitza. Asko.

Esamoldea. Aio!

Herriko ohitura. Kirol zaletasuna.

Pertsonaia. Carlos Sobera.

Festa. Sansebastianak.

Herriko leku bat. Iraurgiren taberna inguruko plaza.

Abestia. Sorotan Beleren *Arratsalde honetan*.

Ametsa. Andereño izatea.

Pereira

Euskarazko hitza. Andereño.

Esamoldea. Komunera joan naiteke?

Herriko ohitura. Kantineira irtetea.

Pertsonaia. Olentzero.

Festa. Karnabalak.

Herriko leku bat. Sanjuandegi.

Abestia. *Horra horra*.

Ametsa. Aktore izatea.

Janad

Euskarazko hitza. Kaixo.

Esamoldea. Aio!; zer moduz?

Herriko ohitura. Kirol asko egiten da.

Pertsonaia. Olentzero.

Festa. Sansebastianak.

Herriko leku bat. Zelai Luze.

Abestia. Shakiraren edozein kanta gustatzen zait.

Ametsa. Euskal Herrian bizi eta erizain izatea.



Aitortu duenez, "guretzako zailtasunik handiena etorkin horiek akademikoki eta euskal hiztun bezala garatzea da. Izan ere, hizkuntza beharrezkoa dute akademikoki aurreratzeko".

Zenbait kasutan, oztopoa hizkuntza bera izateaz gain, aldaketa sozialek eta kulturelek ere garrantzia daukate. Horrelako kasuetan, esku bat botatzen saiatzen da Maider Lopetegi. "Teorian, hizkuntza aldetik babestea da nire eginbeharra, baina integrazio aldetik ere jarraipen bat egiten saiatzen naiz". Horrela, norbaiti arropak falta bazaizkio, jantziak eman edo udaletxera bideratzen saiatzen dira. Lagunarte edota integrazio arazoak dituzten kasu horietan ere, ikaslea Zapo Txokora, kirol elkartetara edo beste taldeetara bideratzen dituzte.

'zer moduz?' sarri esaten ditu. "Euskaraz ari naiz ikasten, baina gazteleraz hobeto moldatzen naiz. Izan ere, gaztelerazko hitz batzuek portugesearekiko antzekotasun handia dute".

Hasiera batean, ingurukoekin ulertzea kostatu egiten zitzaion eta, ondorioz, aitortzen du ez zuela gehiegi hitz egiten. "Orain, ordea, lagunekin euskaraz, gazteleraz eta portugesez hitz egiten dut". Adiskideekin euskarazko hitz asko ikasi ditu eta, horren ordainetan, lagunei ere portugesezko zenbait hitz irakatsi dizkie.

Pereirak marrazki eta ipuin bidez ikasi zuen euskaraz hitz egiten. "Euskal izenak ikastea asko kostatu zitzaidan; ahoskatzeko

zailenak diren izenak 'Aintzel', 'Iher' eta 'Iart' dira; zeharo izen ezberdinak dira".

MARIA AMEUR JANAD ▶

Guersif (Maroko)

"Euskaraz ikastea oso garrantzitsua da niretzat"



Maria Ameer Janad marokoarra da eta orain dela urte eta erdi etorri zen Azpeitira. Hona iritsi aurretik ez zuen euskararen berririk. "Marokon, oro har, jendeak ez daki euskara izeneko hizkuntza hitz egiten denik hemen".

Euskaraz entzundako lehen hitza 'aio' izan zela gogoan du,

eta gaur egun lehendabizi entzundako hitz harekin agurtzen duela dio.

Maria Ameer eskolan hasi zen euskara ikasten, anaiarekin batera. "Gero, lagunekin hasi nintzen euskaraz hitz egiten eta haiekin dudan harremanari esker, azpeitiarrez hitz asko ikasi ditut". Klaseak jarraitzeko ez du oztopo handirik izan, zerbait ulertzen ez zuenean irakasleek emandako azalpenekin argitzen zituelako zailtasunak.

Janadek euskararekiko konpromiso irmoa du. "Argi dagoena da, pertsona batek hizkuntza bat ikasi nahi badu, hizkuntza hori hitz egiten bukatuko duela". Ildo horretan, bizitzeko aukeratu duen

herrian euskara jakitea "beharrezkoa" dela uste du. "Euskara ikastea oso garrantzitsua da niretzat une honetan; beste hizkuntzen aurrean, euskarak lehentasuna du niretzat".

Euskara ikasteko orduan, inguruan tokatu zaion jendeari esker asko ikasi duela aitortzen du. "Jende jatorra daukat inguruan eta, zerbait gaizki esaten dudanean, esan egiten didate eta horrela ikasi egiten dut".

Etorkizunari begira, Euskal Herrian bizitzea gustatuko litzaioke. Izan ere, Maria Ameer Janadek uste du urtebetean aurrerapauso handia egin duela eta, ondorioz, itxaropentsu begiratzen dio datorrenari. ◀

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"


URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

argi jokatu
zure publizitatearekin



uzfarria

Azpeitiko
erakusleho handiena

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

Euskararen gorabeherak ▶



GORA. Ateak zabalik

Loiolako kantinan dauden komunetan dagoeneko zabaldu diote atea euskarari. Izan ere, lehen gazteleraz zeuzkaten, euskara komuneko zulora botata.

BEHERA. Euskara negoziotatik kanpo

Negoziok eta euskararen erabilera ez datoz bat iragarkiaren egilearentzat. Bistan denez, euskarak ez du negozio handirik egingo harekin.

SE ALQUILA
PABELLÓN

Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Zure seme edo alabari euskarazko izena jartzea ukatzen badizute, sala ezazu”

Euskal Herrian Euskaraz ‘Bideak’ eskuliburutik hartua; Uztarran dago edonoren eskura

Albisteak ▶

‘Gaur8’-n Azpeitiko presentzia

Gara-k euskarazko “informazio eta komunikazio proiektu berria” aurkeztu zuen martxoaren hasieran paperean eta Interneten: prentsan *Gaur8* gehigarria –larunbatero ateratzen du– eta *gaur8.info* webgunea.

Bost lagunekoko lantaldea daukate *Gaur8*-n eta horien artean azpeitiar bat dago: Joxean Agirre. Imanol Amiano azkoitiarra ere bertan da –Azpeitian bizi da–.

Webean *Herriak* atalean, *uztarrria.com*-eko albisteen txokoa sortu dute. ◀

Bota lasai ▶

Zeinek joan behar du?

Azpeitian X kalean fruta denda bat ireki dute eta errotulazioa gazteleraz daukate ia den-dena. Zeinek joan behar du hango jabearengana errotulazioa euskaraz jar dezan gonbidatzen: Udal Euskara Patronatuak ala Uztarrria-Kontseiluak? Eta biak joaten badira?

▶ Iñaki Odriozola



gaur eguneko diseinuak
egur trinkoan

Gutxien merezi dudanean maite nazazu...
... behartsuen aurkituko bainaiz
(txinatar esaldia)

www.lasao.com

UDABERRIA UDA

marka berriak
modako markak
konplementoak

Babesa
gazte moda

orain
prezio
buenak

Xanjuandei auzuen gatzauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369

Eman zure negozioaren berrir Azpeitiko Gidan!

azpeitiko



HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



Goiko kalea 5, 3A • 20730 Azpeitia, Gipuzkoa • Tel: 943 080688 • e-posta: eregi@eregi.net